


LEZO 8







«Lezo» 8

1.992.eko Ekaina



egilea: LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA
babesleak: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA
eta GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
azalaren egilea: A. TREKU
fotokonposaketa eta inprimategia: ANTZA
lege gordailua: SS - 274 - 92

AURKIBIDEA

| | |
|---------------------------|----|
| —HITZAURREA | 9 |
| —ELKARTEEN TXOKOTIK | 11 |

HISTORIA

| | |
|--|----|
| 1.- «Atzerrian eta itsasoan hildako lezoarrak, 1638-1850» LANDER ZURUTUZA | 13 |
| 2.- «Gaitzak eta izurriak XIX. mendeko Lezon» ERNESTO GUARDIOLA..... | 23 |

GIZARTEA

| | |
|--|----|
| 1.- «Euskararik gabeko haurrik ez!» AGUSTINA PONTESTA | 27 |
| 2.- «La historia interminable» HEZIKINTZA GURASO ELKARTEA | 31 |

KULTURA

| | |
|--|----|
| 1.- «Garai bateko bertsolariak Lezon» KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA | 33 |
| 2.- «Elias Salaberria oroitaldiaren ondoren zer?» ANDONI TREKUREKIN SOLASALDIA..... | 37 |

EKOLOGIA

- 1.- «Epertxoko: berpoblaketa baten saiakera».
LEZOKO EKOLOGIA TALDEA.....39
- 2.- «Gure Jaizkibel, historia mamitsua»
BETIXU44

SAIOAK

- 1.- «Bazen behin batean Lezo»
JOXE JUAN UGALDE ORDOKI.....47
- 2.- «Jaizkibel gaineko argi misteriotsua dela eta...»
JOSEBA AURKENERENA50
- 3.- «Dieta Berjaleak»
IÑIGO ESNAOLA.....58

LITERATURA

● PROSA

- 1.- «Xarit eta Laino» Igo atala».
KARLOX BARRENTSORO61
- 2.- «Zer ote du kamamilak?»
ANTONIO MARI77

● POESIA

- 1.- «Eta egunero... demagun»
IZENIPE79

● BERTSOLARITZA

- 1.- «Nekazariak haserre»
MARTZELINO LEGORBURU «ARGIÑANE»83

● **ERITZI ARTIKULUAK**

1.- «Breve reflexión a la voluntad popular»
AITOR SARASOLA, JUAN RAMON MANKUSO85

2.- «Pakea eta puzkerrak»
IMANOL ESNAOLA86

HITZAURREA

Kaixo lezotar!!

Esku artean duzun hau Lezo aldizkariaren zortzigarren alea da, jitez eta tajuz aldatu ez bada ere LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA izan da oraingoan, aurreko alean bezalaxe, lana burutu duena.

Dena den, guk ezin ezer egin hainbat lezotarrak beren lanak bidali izan ez balituzte. Eta horixe nahi genuke izatea aldizkari hau: Lezotarron lanak kaleratu eta Lezoren herri nortasuna sendotzeko tresna.

Tira, besterik gabe, ale berri hau gustoko izan dezazuela.

Agur bero bat.

Kaixo lezotar!!

Este que tienes entre manos es el octavo número de la revista Lezo, si bien no ha cambiado su presentación en comparación con números anteriores, es el segundo que confecciona la LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA. Pero esto no hubiera sido posible sin las aportaciones de tantos lezotarras. Esto es precisamente lo que queremos que sea esta revista LEZO, un marco para poder publicar los trabajos de los lezotarras y fortalecer el espíritu de Lezo como pueblo.

Sin más, nos despedimos esperando que te guste.

Agur bero bat.

LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA

OHARRA: Hurrengo alerako edozein lan, edo iradokizun bidali nahi bazenu OROITZENE AEK EUS-KALTEGIko buzoian utzi besterik ez duzu egin behar, edo gurekin zuzenean harremanetan jarri.

NOTA: Si quieres publicar algún trabajo o para cualquier sugerencia no tienes más que dejarlo en el buzón de OROITZENE AEK EUSKALTEGIA o ponerte en contacto con nosotros.

LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEAREN SORRERA DELA ETA

Lezoko herrian jakina da orain dela denboralditxo bat, herriko elkarte guztiek koordinakunde bat sortu zutela. Koordinakunde honen zereginak, funtzioak, egitasmoak... eta abarrekoak jakiteko bertako partaidea den Maria Jose Intxaurrendietari galderatxo batzuk egingo dizkiogu:

1.- Zein elkartek osatzen dute koordinakundea?

Esan genezake Lezoko elkarte gehienak gaudela koordinakundean, hain zuzen: Oroitzene A.E.K. euskaltegia, altamira auzo elkarte, altamirako gazteak, Askagintza, Allerru, Dantza eskola, Ekaitz, Eskalada taldea, Euskara taldea, Gestorak, Hezikuntza guraso elkarte, Haurtxo haur eskola, Ixkulin, Lezoko ekolojia taldea, Lezoko zine Klub, Lurralde, Pysbe auzoko elkarte, Senideak, Tiñelu, Txerrimuño, Txistu taldea.

2.- Noiz eta non biltzen zarete?

Haisera batean Andreonen biltzen ginen eta denbora asko horrela eman genuen bainan geroago, udaletxeak bilera bakoitzeko eskaera txostena betetzea esijitzen zigula eta, lekuz aldatzea erabaki genuen. Gaur egun bilerak Ekaitzek duen aretoan egiten ditugu. Esan beharra dago zenbait unetan bilerak astero egin ditugula eta, oraindik gehiago batzutan aste berberan bi eta hiru aldiz elkartu izan gara.

3.- Zertarako izan da sortua?

Talde eta elkarten partaidetza azken urteetan errealitate bat izan da gure herrian. Lau urtean zehar kultur batzordearen bidez, gehien bat bideratu dugu lan hori.

Hauteskundeak direla eta egoera honek aldaketa izugarria jasotzen du ez direlako batzorderik antolatzen edo behintzat elkarteak parte hartzeko aukerarik ematen duten batzorderik. Horregatik, konbentziturik gaudelako indarrak batu, inizatibak bultzatu eta baliabide urriak aprobetxatzeko erarik egokiena delako sortu da koordinakundea. Azken finean lezoarren eguneroko bizitza osatzen duten elkarte guztiak eragiteko tresna baliogarria iruditzen zaigulako.

4.- Zenbat biltzen zarete?

Badakizu zer gertatzen den horrelako erakunde zabaletan, ba askotan zaila izaten dela denok elkartzea. Alde batetik ez garelako hainbeste elkarte bakoitzean eta bestaldetik badagoelako beti zerbait egin beharra. Orokorrean gehiengoak elkartzen gara baino gehien bat oso ekintza edo lan konkretu bat aurrera eraman behar dugunean. Eguneroko lana, txingurrien lana, zailago egiten zaigu denoi.

5.- Zuen arteko harremak nolakoak dira?

Laburki esanda irekiak eta aberatsak iruditzen zaizkit. Kontutan hartu behar dugu oso pertsona desberdinak gaudela, pentsakera desberdinekoak, bainan hori ez da izan

oztopo gure lanean. Alderantziz oso aberatsa izan da eta denok izan dugu eta dugu aukera gure irizpideak botatzeko. Askotan eztabaida gogorrek ere izan ditugu baina nere ustez garbi dago denak beharrezkoak garela.

6.- Harreman honek zein fruitu eman dio Lezoko herriari?

Nere ikuspuntu apaletik esango nuke gure arteko elkartasun hori herrian ere nabaritzen dela. Zertan? Ba askotan elkarte bakoitzak antolatzen dituen zenbait ekintzetan besteen partaidetza ere jaso duelako eta nolabait taldeko lanaren helburua gauzatzen ari garelako. Bizi garen gizarte indibidualista honetan ez da erraza baina gutxienez saiatzen gara, zertxobait behintzat, auzo lana bultzatzen.

7.- Koordinakunde honek galerazten al du elkarte bakoitzaren lan autonomia?

Baterez. Elkarte bakoitzak bere urteko programa burutzen du. Koordinakundearen bakoitzak bere burua burutzen du. Koordinakundearen bakoitzak bere burua burutzen du. Koordinakundearen bakoitzak bere burua burutzen du. Koordinakundearen bakoitzak bere burua burutzen du.

8.- Lezoko herrian atal dexente daudela jorrazteko eta guztietara iristea ezina dela begibistakoa da. Hau honela izanik, lantzeko gaia edo atala zein erizpidearen arabera aukeratu duzue?

Erizpideak? Beno ez dut uste hain zehatzak garenik baina nahiko garbi daukagu denok egin dezakegun zerbait izatea beharrezkoa dela elkarteetan eztabaidatua eta premiazkoa ikusten dena, beti ere gure indarrak neurtuz.


9.- Aurrera begira ze egitasmo dituzue?

Momentuz bi komisio daude lanean, bata Lezo aldizkaria bultzatzen ari dena eta bestea, «Jaizkibel» erdigunea izanik, zenbait ekintza lantzen ari dena herritarren artean errealitatearen ezagupena sakontzeko eta sentzibilitatea pizteko.

ATZERRIAN ETA ITSASOAN HILDAKO LEZOARRAK (1638-1850)

Lezoko San Juan Bataiatzailearen Parrokiako sakramentu liburuen arabera 2.247 dira aztertutako epealdian hildako lezoarrak. Horietatik 271 Euskal Herritik kanpo edo itsasoan hil ziren, hots, ehuneko hamarra baino gehiago. Azken hauek sistematikoki bildu ditugu zerrenda batean, azken hatsa non eta noiz hartu zuten aipatuz, gure Lezoko historia zaharraren ezagutza albiste berriekin aberastu asmoz.

Zerrenda honetan garrantzi handia hartzen dute garaiko zenbait errealitatek, hots, migrazioek, arrantzak, Andalusia eta Ameriketikiko merkatal harremanek eta azken hauekin loturik XVIII. mendeko «Real Compañía Guipuzcoana de Caracas»ek, Espainiak XVII. mendean Frantziarekin eta XVIII. ean Ingalaterrarekin izandako gerrek eta hauekin loturik Espainiako «Armada»k, XVII. mende erdialdeko kortsaritzak, eta abarrek. Bertan, oso azaletik bada ere, Aintzin Erregimeneko lezoar giza eta ekonomi egiturak eta nazioarteko testuinguru politikoa antzematen dira.



Oharra: Jarraian izarratxoak daramaten datek Lezon heriotzaren berri izan zeneko edo hileta elizkizunak ospatu zireneko eguna adierazten dute, besteek heriotzaren eguna bera.

I. 1638-1640

(Epe honetan 20 dira guztira hildako lezoarrak).

II. 1641-1650

(Epe honetan 100 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1641-MAI-7 *. **ROQUE DE IRIBERRI**. Kortso ekintzetan.
- 1641-EKA-8 *. **JUANES DE VIDARTE**. Andreone etxeko nagusia. Holandan, preso.
- 1641-UZT-3 *. **SEBASTIAN DE UZCANGA**. Aragoan.
- 1641-URR-29 *. **JUANES DE IRIGOYEN**. Kortso ekintzetan.
- 1642-URT-12. **MARTIN DE GARATE** eta **GASPAR DE GARATE** anaiak. Ameriketean.
- 1642-MAI-17. **SANTIAGO DE GARAIKOECHEA** pilotua. Flandesen, preso.
- 1642-IRA-10. **GREGORIO DE SANZENA**. Espainiako «Armada»n.
- 1643-URR-7. **JUAN DE ITURBE**. Kortso ekintzetan.
- 1644-URT-29. **SAN JUAN DE TORRE** eta **MIGUEL DE MIURA**. Kortso ekintzetan.
- 1644-URT-30. **DOMINGO DE ALFARO**. Kortso ekintzetan.
- 1644-MAR-30. **BARTOLOME DE ARRANAMENDI**. Ameriketean.
- 1644-API-23. **LEON DE OLLO**. Kortso ekintzetan.
- 1644-API-25. **MIGUEL DE ARANBURU**. Cantalapiedran (Salamanca), Ameriketatik zetorrela.
- 1644-MAI-5. **JUANES DE GANBOA**. Ameriketean.
- 1644-EKA-2. **MIGUEL DE LARGO**. Kortso ekintzetan.
- 1645-EKA-16 *. **MARTIN DE IRIBARREN**. Andalusiain.
- 1645-ABU-18 *. **JUAN DE ADUNA**. Campechen (Mexiko).
- 1646-OTS-1 *. **DIEGO DE ALDAVE**. Cadiz hirian.
- 1646-MAI-21 *. **LUCAS DE IRIGOYEN**. Santo Domingon (Dominikar Errepublikan).
- 1647-MAI-22 *. **MARTIN DE ZUMARRISTA**. Madrilen.
- 1647-ABU-1 *. **JUANES DE ARRILLAGA menor**. Kortso ekintzetan.
- 1647-ABE-3 *. **JUANES DE SOROETA**. Lleidan, ejerzitoan, Lezoko soldadu bezala.
- 1648-OTS-11 *. **ESTEBAN DE ARIZABALO** eta **JUAN NUÑEZ DE DARIETA**. Napoli hirian (Italia) Felipe IV.aren boterea berrezarri asmoz Don Juan de Austriak eratu zuen flotan.
- 1648-UZT-10 *. **ESTEBAN DE ARRILLAGA**. Maoko portuan (Menorca irla), «Armada»n.
- 1649-MAR-23 *. **JOSEPH DE ZUMARRISTA**. Ameriketean.
- 1649-UZT-11. **MARTIE DE ITURAIN, JUAN DE DORRONSORO, MARTIE DE ARRILLAGA, PEDRO DE DARIETA, JUANES DE GANBOA** eta **MARCOS DE GANBOA**. Arrantzara atera ondoren, itota.
- 1649-URR-4 *. **BARBARA DE ZUBITOLA**. Valladolid hirian.

III. 1651-1660

(Epe honetan 104 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1651-IRA-14 *. **FRANCISCO DE CAREAGA**. Kortso ekintzetan.
- 1652-MAR-19 *. **JUAN DE VILLAVICIOSA**. Bartzelonako setioan, konpainia baten alfereza zela.
- 1652-ABU-11 *. **SALVADOR DE ITURAIN**. Bordelen (Frantzia), «Armada»n, soldadu zela.
- 1652-IRA-11 *. **JUAN NUÑEZ DE MURU Y LEZOANDIA**. Ameriketan.
- 1652-URR-6 *. **JOSEPH DE ENDARA**. Cadiz ala Sevillan.
- 1652-AZA-28 *. **JACQUES DE FEBRES**. Frantzian.
- 1653-EKA-8 *. **MARIA SANZ DE SANZENA**. Valladolid hirian.
- 1653-AZA-1 *. **PASCUAL DE AGUIRRE**. Bordeleko itsasadarrean, «La Soledad» untzian, gaixotasunez.
- 1657-URR-3. **DIEGO DE AGUIRRE**. Cadiz hirian.
- 1658-API-9 *. **JUAN DE BERAIZ**. Kortso ekintzetan.
- 1658-IRA-11 *. **LUCAS DE ELORRIAGA**. Kortso ekintzetan.
- 1658-AZA-16 *. **SEBASTIAN DE DARIETA, JUAN NUÑEZ DE ITURAIN** eta **JUANES DE GANBOA**. Itsasoan galduta, «San Sebastian» untzian.
- 1659-ABU-24 *. **MIGUEL DE ITURAIN**. Andalusiatic zetorrela.
- 1660-UZT-15. **MATIAS DE AIZCORBE**. Arrantzara atera ondoren, itota.

IV. 1661-1670

(Epe honetan 73 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1661-IRA-azken aldera *. **JUAN DE ITURAIN** kapitaina. Ameriketan.
- 1662-MAI-1. **JUANES DE MARTIERENA**. Arrantzara atera ondoren, itota.
- 1662-IRA-8 *. **VICENTE DE ARRILLAGA, JUANES DE ZULOAGA, BAPTISTA DE CAMUSARRI** eta **LEON DE IRIBERRI**. Itsasoan galduta, Cadizera zihoazela.
- 1663-EKA-20. **MARTIN SANZ DE ECHEVERRIA**. Kortso ekintzetan.
- 1665-URR-8 *. **MIGUEL DE ITURRARAIN**. Ameriketan.
- 1665-AZA-4 *. **SEBASTIAN DE CAREAGA**. Ameriketara zihoala.
- 1666-UZT-16 *. **JOSEPH DE ZULOAGA**. Ameriketan.
- 1667-URT-20 *. **GABRIEL DE LA CUESTA**. «Armada»n.
- 1667-API-6 *. **JUANES DE DARIETA** kapitaina. Irlandan.
- 1667-MAI-hasera aldera *. **FELIPE DE UGALDE**. Berberian (Afrika).
- 1667-IRA-7 *. **GREGORIO DE DARIETA**. (?)
- 1668-ABE-28 *. **ESTEBAN DE ZUBIGARAY**. Burgosko ospitalean, Andalusiatic zetorrela.

V. 1671-1680

(Epe honetan 100 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1671-URT-20 *. **MARIANA DE GOIZARAN**. Valladoliden.
- 1672-MAR-6. **FERMIN DE IRIBARREN**. Ameriketatik zetorrela.
- 1673-API-9 *. **BAPTISTA DE DARIETA**. Habanako portuan (Kuba), galeoien bidaian.
- 1674-EKA-3 *. **JUAN DE ECHEVESTE** eta **ANTONIO DE ECHEVESTE**. Ameriketatik zetoze.

- 1676-UZT-5 * **GUILLERMO DE MURU Y LEZOANDIA** jauna, Lezoandia etxeko Guillermo de Muru y Lezoandia (+ 1664) jaunaren semea. Orango pre-sondegian (Afrika).
- 1677-URR-10 * **PEDRO DE SALAVERRIA**. Cristalina herrian (Burgos), Cadiztik zetorrela.
- 1677-ABE-14 * **PATRICIO DE LARZABAL** jauna. Cordoba hirian.
- 1677-ABE-16 * **MIGUEL DE YANCI**. Cadizen.
- 1678-ABU-21 * **SAN JUAN DE VIDARTE**. Cadiz hiran.
- 1678-URRI-1 * **NICOLAS DE LETE**. Frantzian.
- 1679-AZA-15. **FELIX DE IRIGOITI**. Ameriketean.

VI. 1681-1690

(Epe honetan 102 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1684-IRA-21. **BARTOLOME DE CAMUZARRI**. Frantzian.
- 1684-IRA-24 * **JOSEPH DE SALAVERRIA**. Frantzian.
- 1684-URR-22 * **SANTIAGO DE IRIBERRI**. Frantzian.
- 1684-ABE-17 * **SEBASTIAN DE CAREAGA**. Ameriketean.
- 1685-URT-4 * **RAFAEL DE ECHARTA**. Frantzian.
- 1685-MAI-18 * **ANTONIO DE IRIBARREN** jauna, benefiziatua. (?)
- 1685-AZA ala ABE-28 * **Fray AGUSTIN DE SOROETA**. (?)
- 1686-OTS-23 * **FRANCISCO DE MACUSO**. (?)
- 1687-MAR-9 * **ONOFRE DE ENPARAN** Panaman.
- 1688-EKA-1. **JUANES DE SALAVERRIA**. Jaizkibel atzeko Arsuko portuan (Hondarribia), itota.
- 1688-UZT-29. **JUAN DE ARREGUIA**. Itsasoan, itota
- 1690-URTA-14 * **JUANES DE LAFORZADA**. Frantzian.
- 1690-URT-15 * **JUAN DE LOPEZ DE LARZABAL**. Cadizen.
- 1690-MAI-30 * **JUAN BAUTISTA DE CAREAGA**. Frantzian.
- 1690-URR-28 * **JOSEPH DE PICOACARATE**. «Armada»ko untzietan, Cadizerako bidean.

VII. 1691-1700

(Epe honetan 101 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1691-URT-21 * **JOSEPH DE SALAVERRIA**. Frantzian.
- 1691-EKA-13 * **JOSEPH DE IRURETA**. (?)
- **1692-URT-6** * **JUAN BAUTISTA DE GAINZA**. Ameriketean.
- 1692-OTS-24 * **JOSEPH DE CAREAGA**. «Armada»n.
- 1692-MAI-11 * **FELIPE DE SALAVERRIA**. Ameriketean.
- 1692-URR-1. **SEBASTIAN DE LARGO**. Kortso ekintzetan.
- 1693-API-12 * **JOSEPH DE LASARTE**. Frantzian.
- 1693-API-19 * **JUANES DE ECHEVELZ**. (?)
- 1693-API-28. **DOMINGO DE ECHEGARAY**. Kortso ekintzetan
- 1693-UZT-22. **MARTIN DE ELIZONDO**. Untzi batetik erorita, bapatean.
- 1694-EKA-10 * **ESTEBAN DE ALFARO** kapitaina. Cadizen.

- 1694-URR-19 *. **JOSEPH DE ARPIDE**. Cadizen.
- 1695-URT-1 *. **LAZARO DE TORRES** Ameriketan.
- 1696-URT-6 *. **BENITO DE ARPIDE**. Cadizen.
- 1696-MAI-20. **BERNARDO DE ELIZONDO**. Itsasoan, itota.
- 1696-MAI-20 *. **LEON DE GAINZA** jauna, Francisco de Gainza kapitainaren semea. Trujillo hirian (Perú).
- 1696-URR-31 *. **IGNACIO DE ARISTIZABAL**. Cadizen.
- 1697-URT-27. **JUAN DE AGUIRRE**. Ingalaterran.
- 1697-API-7 *. **IGNACIO DE VIDARTE**. Cartagenan (Murtzia).
- 1697-EKA-2 *. **JOSEPH DE AGUIRRE**. Frantzia, itsasoan itota.
- 1698-URR-19 *. **ANTONIO DE ECHEVELZ**. Ameriketan.
- 1699-API-29. **MIGUEL DE OLAIZOLA**. Arrantzara atera ondoren, itota.
- 1700-URT-3 *. **VICENTE DE ARPIDE**. Cadizen, «Armada»n.
- 1700-UZT-26 *. **ANTONIO DE OLAIZOLA**. Cadizen.

VIII. 1701-1710

(Epe honetan 118 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1701-IRA-18. **AGUSTIN DE CHARTE**. Itsasoan.
- 1702-ABE-31 *. **JUANES DE IRURETA**. Frantzia.
- 1703-AZA-1 *. **JOSEPH DE OLLO**. Badajozen.
- 1703-AZA-18. **TOMAS DE AURELA** jauna. Ameriketan.
- 1704-API.6 *. **BONIFACIO DE AGUIRRE**. Buenos Airesen (Argentina).
- 1704-AZA-1 *. **JUANES DE ECHEVERRIA**. Portugalen.
- 1704-ABE-24 *. **FRANCISCO DE MARTIERANO**. Portugalen.
- 1706-API-17 *. **JUAN ANTONIO DE IRIBARREN menor**. Rio de Janeiron (Brasil), Buenos Airestik zetorrela.
- 1706-MAI-25 *. **BERNARDO DE MUGICA**. Cadizen.
- 1706-UZT-18 *. Fray **JOSEPH DE SALAVERRIA**.(?)
- 1708-IRA-29. **AGUSTIN DE AGUIRRE**. Malagan.
- 1709-EKA-29 *. **NICOLAS DE AURELA**. Sevillan.
- 1709-AZA-10 *. **FRANCISCO DE ECHEVERRIA**. Buenos Airesen.
- 1710-EKA-16. **JUANES DE IRACEZAVAL**. Lisboan (Portugal).
- 1710-EKA-22 *. **SEBASTIAN DE CAMUSARRI**. Lisboatik zetorrela.
- 1710-ABU-1. **ERRAMUS DE URBIETA**. Itsasoan.
- 1710-ABU-3. **MIGUEL DE DARIETA** eta **JUANES DE BARRENECHEA**. Itota.
- 1710-ABU-9. **JUAN ANTONIODE ELIZONDO**. Itsasoan, itota.
- 1710-ABU-10. **MANUEL DE ECHEVERRIA**. Itsasoan, itota.
- 1710-ABU-17. **JUAN BERNARDO DE URRUTIA**. Itsasoan, itota.
- 1710-ABE-9 *. **JOSEPH ANTONIO DE ZAVALA**. Mexikon.

IX. 1711-1720

(Epe honetan 135 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1711-MAR-29 *. **TOMAS DE EZQUERRENEA**. Santoñan (Kantabria).

- 1711-API-5 *. **FELIPE DE ZAVALA**. Ameriketan.
- 1711-EKA-24. **Gizon frantses bat**. Lezoko puntalean, arrantzako sarea botatzera etorri ondoren, itota.
- 1711-ABU-15 *. **FERMIN DE ECHEVERRIA**. Cadizen, itota.
- 1711-IRA-23 *. **JUAN BAUTISTA DE SANZENA**. Mexikon.
- 1712-ABE-11 *. **NICOLAS DE ALZA**. San Agustinen (Madril), Cadiztik zetorrela.
- 1713-OTS ala MAR-18. **JUAN FRANCISCO DE AGUIRRE**. Itsasoan, itota.
- 1715-API-12 ala 13. **GREGORIO DE GALARZA**. Bartzelona inguruan, Pasaia-tik Bartzelonara bonbak eramán zituzten kostazainuntzietako batean.
- 1715-MAI-1. **IGNACIO DE ARPIDE** kapitaina. Buenos Airestik Cadizera zetorrela, Andres Martinez de Murguia jaunaren untzietan, bertan pilotu nagusia zela.
- 1715-EKA-23. **CAYETANO DE ECHARTE**. Puerto de Cabellon (Venezuela).
- 1715-AZA-24 *. **IGNACIO DE ENPARAN**. Floridako kostaldean (Estatu Batuak) galdu zen flotako galeoietan.
- 1715-ABE-1 *. **JUANES DE INURRUSUN**. Floridako kostaldean galdu zen flotako galeoietan.
- 1716-UZT-25 *. **SALVADOR DE SALAVERRIA**. Veracruzen (Mexiko).
- 1717-URT-6. **LAZARO DE ELIZONDO**. Burgosko ospitalean, Cadiztik zetorrela.

X. 1721-1730

(Epe honetan 59 dira guztira hildako lezoarrak).


- 1721-API-19 *. **JOSEPH DE IRIBERRI**. Cadizko badian, Buenos Airesera zihoala ala bertatik zetorrela, itota.
- 1721-URR-4 *. **PEDRO DE AURELA** kapitaina. **Cadiz hirian**.
- **1722-API-19**. **ESTEBAN DE ESPOLOSIN**. Lezoko kaian, itota.
- 1727-AZA-8 *. **JOSEPH DE IRIBARREN, menor**. Buenos Airestik Cadizera zetorrela, itota.
- 1727-AZA-23. **JUAN NUÑEZ DE SALAVERRIA**, Darieta baserriko nagusia. Itota.
- 1728-URR-24 *. **SEBASTIAN DE ARBELAIZ** kapitaina. Hondurasen.
- 1728-URR-24 *. **FRANCISCO DE ECHEVERRIA**. (?)
- 1730-API-15 *. **BERNARDO DE IRIBARREN**. Veracruzen.
- 1730-API-22 *. **IGNACIO DE OLOSAGA**. Veracruzen.

XI. 1731-1740

(Epe honetan 105 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1731-API-22 *. **DOMINGO DE GOROSTIOLA** jauna. Puebla de los Angelesen (Mexiko).
- 1732-MAR-29 *. **PEDRO DE ELIZONDO**. Veracruz hirian.
- 1733-URR-25 *. **NICOLAS DE ARPIDE** eta **PEDRO DE LOPERENA**. Itsasoan galdu zen Torres jeneralaren flotako untzietan, itota.
- 1735-OTS-13 *. **ASCENSIO DE MUSTIOLA**. Frantzian.
- 1735-URR-10 *. **JOSEPH DE ZELAYA**. Ameriketan.

- 1736-MAR-14 *. **JUAN ANTONIO DE ECHEVERRIA**. Caracastik (Venezuela) zetorrela.
- 1738-UZT-18 *. **JOSEPH IGNACIO DE ECHEVERRIA**. Maracaibon (Venezuela).
- 1738-AZA-22 *. **JUAN DE ECHEVESTE** jauna, Santiagoren Ordeako zalduna. Cadizen.
- 1739-MAI-28 *. **JOSEPH DE PUY**. Caracasen, «Nuestra Señora del Coro» untzian.
- 1739-IRA-1 *. **MIGUEL DE LASARTE** jauna, Zacatecasen (Mexiko).
- 1740-ABU-10 *. **PEDRO DE OSOZAVAL**, marinela. «Armada»n.
- 1740-ABU-12 *. **JUAN ANTONIO DE SALAVERRIA**. San Pedroko portuan (Martinika irla).



XII. 1741-1750

(Epe honetan 117 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1741-URT-8 *. **JUAN BAUTISTA DE MARTIERENA**. Caracastik zetorrela, «San Sebastián» untzian.
- 1741-URR-30 *. **FRANCISCO DE APAIZECHEA**. Ameriketean.
- 1741-ABE-2 *. **JUAN ESTEBAN DE OROÑOZ**. Veracruzen.
- 1742-URT-9 *. **MARTIN DE ECHAGARAY**. Cartagenan (Kolonbia).
- 1742-URT-14 *. **JOSEPH IGNACIO DE ECHEVERRIA**. Caracastik zetorrela.
- 1742-URT-24 *. **JOSEPH DE ARISTIZABAL**. Ingalaterran, preso.
- 1742-OTS-28 *. **JUAN IGNACIO DE IRURUETA** Ingalaterran.
- 1742-API-4 *. **JOSEPH DE SALAVERRIA**. Ingalaterran.
- 1742-UZT-29 *. **JOSEPH ANTONIO DE ECHEVESTE** eta **FELIPE DE ECHAGARAY**. Caracastik zetozeala.
- 1742-IRA-30 *. **RAMON DE OLACIREGUI** eta **JOSEPH DE AZAROLA**. Ingalaterran.
- 1742-ABE-8 *. **FRANCISCO DE ECHEVERRIA**. Puerto Ricon, «Nuestra Señora del Coro» untzian.
- 1743-URT-20 *. **PAULO DE ECHEVESTE**. Caracasen.
- 1743-EKA-11 *. **FELIPE DE ICAZOTEA**, **JOSEPH DE ECHAGARAY** eta **FERMIN DE GOROSTIDI**. Caracasen.
- 1743-ABU-10 *. **JOSEPH DE LUJANBIO**. Ingalaterran.
- 1743-IRA-7. **JORGE DE ECHEVERRIA** kapitaina, koronela. Toulongo portuan (Frantzia), «Armada»ko «Javier» untziko komandantea zela.

- 1744-OTS-22 *. **JOSEPH DE MARTIERENA**. Caracastik zetorrela.
- 1744-MAR-23 *. **MIGUEL DE ZUGASTI**. Ameriketan.
- 1745-MAI-5 *. **DOMINGO DE LASARTE**. Caracasko kostaldean.
- 1745-AZA-17 *. **JUAN BAUTISTA DE SISTIAGA**. Caracasen.
- 1746-OTS-3 *. **JAVIER DE ARPIDE**. Cartagenan (Murtzia), «Armada»n, Juan Joseph Navarro komandante jeneralaren flotan.
- 1746-OTS-14 *. **JUAN BAUTISTA DE LASARTE**. Cadizen.
- 1748-OTS-3 *. **MARTIN DE IBARGOIE**n jauna, Lezoko Parrokiako presbiter eta benefiziatua. Habana hirian, «Santo Domingo» untziko kaperaua zela.
- 1748-MAR-21 *. **DOMINGO DE BERRA**. Camariñasen (A Coruña), «Real Compañía Guipuzcoana de Caracas»eko «Nuestra Señora del Coro» untzian.
- 1748-MAR-29 *. **MARTIN DE IRUZUETA** Ingalaterran.
- 1748-URR-12 *. **MIGUEL DE EZQUERRENEA**. Perun.
- 1749-URT-25 *. **JOSEPH MIGUEL DE ECHEVERRIA**. Caracasko kostaldean, «Nuestra Señora del Coro» untzian.
- 1749-URT-26 *. **MIGUEL DE SALAVERRIA**. Caracasen.

XIII. 1751-1760

(Epe honetan 107 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1753-ABU-14 *. **JOSEPH DE IRACEZAV**AL jauna. Liman (Peru).
- 1755-AZA-9 *. **JUAN FELIPE DE ECHEVERRIA**. Caracastik zetorrela, «San Fernando» untzian, itota.
- 1756-URT-24 *. **JUAN FRANCISCO DE IRACEZAV**AL. Ameriketan.
- 1758-MAR-4. **SAN JUAN DE PUY**. Itota.
- 1759-IRA-23 *. **FRANCISCO DE ARISTIZABAL**. Caracasen.

XIV. 1761-1770

(Epe honetan 95 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1762-ABU-27 *. **JUAN JOSEPH DE ESPOLOSIN**. Caracasen.
- 1763-MAI-14 *. **JAVIER DE ELIZONDO**. Ingalaterran, presondegian.
- 1763-IRA-16 *. **ROQUE DE YARZA**. Caracasko kostaldean.
- 1766-EKA-23. **JOSEPH MANUEL DE ECHAGARAY**. Caracasen.
- 1768-UZT-16 *. **FRANCISCO IGNACIO DE ARISTIZABAL**. Puerto Cabelloko ospitalean.
- 1768-UZT-16 *. **FELIX DE UGARTEMENDIA**. San Felipen (Venezuela).

XV. 1771-1780

(Epe honetan 94 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1771-MAI-20 *. **FRANCISCO DE ALCANO**. A Coruñako ospitalean.
- 1771-EKA-22. **JUAN FRANCISCO DE SALAVERRIA**. La Guairan (Venezuela).
- 1773-OTS-8 *. **AGUSTIN BONIFACIO DE SALAVERRIA** jauna. Mexikon.

- 1774-OTS-24 *. **DIEGO IGNACIO DE SARASTUME** jauna. Cadiz hirian.
- 1774-EKA-10 *. **JOSEPH ANTONIO DE USTIOLA**. Orinoco ibaiaren inguruko kostaldean (Venezuela).
- 1774-URR-20 *. **JOSEPH ANDRES DE IGUERETEGUI**. Puerto Cabelloko ospitalean.
- 1775-AZA-11 *. **JOSEPH DE ERNAU**. La Guairako ospitalean.
- 1776-URT-27 *. **VICENTE DE ECHAGARAY**. Hondurasen.
- 1776-URT-28 *. **PASCUAL DE SALAVERRIA**. La Guairako portuan, itota.
- 1776-EKA-23 *. **JAVIER DE ARRECHE**. Puerto Cabelloko ospitalean.
- 1777-MAI-3. **FELIX DE USTIOLA**. Itsasoan, «Armada»ko «San Lorenzo» untzian.
- 1780-UZT-27 *. **MIGUEL DE MARTIERENA**. Plymouthko presondegian (Ingalaterra).
- 1780-ABE-20 *. **JOSEPH FELIX DE ZELAYA**. Puerto Cabelloko ospitalean.

XVI. 1781-1790

(Epe honetan 95 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1782-UZT-18 *. **MIGUEL DE MARTIERENA**. Ingalaterran, presondegian.
- 1785-ABU-18 *. **GREGORIO DE ISASA**. Habanan.
- 1786-MAI-22 *. **JUAN FRANCISCO DE AZAROLA**. Venezuelan.
- 1787-UZT-1 *. **MIGUEL ANTONIO DE ARISTIZABAL**. Venezuelan.

XVII. 1791-1800

(Epe honetan 124 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1795-MAR-17 *. **SANTIAGO DE AGUIRRE, MIGUEL IGNACIO DE AGUIRRE, JOSEPH DE BORDA, JOAQUIN DE IRURUETA** eta **JOSEPH NICOLAS DOMINGO DE OLASO**. Itsasoan, txalupa hondoratu ondoren itota.
- 1796-EKA-22 *. **ESTEBAN DE IRURUETA**. Itsasoan, untzi batetik uretara erorita.
- 1797-URT-1 *. **VICENTE DE CRESPO** jauna. Txinan.
- 1797-URT-30 *. **JOSEPH ANTONIO DE SISTIAGA** Puerto de Cabellon.
- 1797-MAI-8 *. **JUAN BAUTISTA DE ARAÑABURU** eta **JOSEPH MIGUEL DE ARAÑABURU**. Habanan.
- 1799-MAI-23 *. **PASCUAL DE ALZELAY**. Itsasoan.
- 1799-ABE-15 *. **JUAN IGNACIO DE ARAÑABURU**. Habanan.

XVIII. 1801-1810

(Epe honetan 93 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1802-URR-7 *. Fray **FELIX DE UGARTEMENDIA**. Mexikon
- 1804-URT-10 *. **MIGUEL IGNACIO DE ULACIA**. Paraguayn.
- 1805-URT-3. **PAULO DE INCHAURRANDIETA**. Bihotzekoak jo ondoren uretara erorita, bapatean.
- 1809-IRA-10 *. **AGUSTIN DE SORONDO**. Kuban.

XIX. 1811-1820

(Epe honetan 124 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1816-MAI-25 *. **FRANCISCO DE MACHINENEA**. Puerto Cabellon.
- 1816-EKA-25 *. **PEDRO DE VIDART** jauna. Veracruz.
- 1816-ABE-10 *. **JUAN ANTONIO DE ECHAGARAY, JOSEPH GABRIEL DE ECHAGARAY, JUAN BAUTISTA DE ECHAGARAY, GREGORIO DE ALZELAY, JOSEPH FERMIN DE ALZELAY, RAFAEL DE ALZELAY, MANUEL DE CAMIO, MANUEL DE BURUTARAIN** eta **JUAN JOSEPH DE AGUIRRE**. Hondarribiko barran, arrantzara atera ondoren txalupa hondoratu-ta.
- 1817-EKA-21. **FRANCISCO DE MARTIERENA** eta **RAMON FRANCISCO DE MARTIERENA** aita-semeak, **JUAN JOSEPH DE OLLO** eta **JOSEPH MANUEL DE OLLO** aita-semeak, **ATANASIO DE LETEMENDIA** eta **JOSEPH MIGUEL DE LETEMENDIA** aita-semeak, eta **MARTIN JOSEPH DE ALZELAY**. Hendaia inguruan, arrantzara atera ondoren txalupa hondoratuta.

XX. 1821-1830

(Epe honetan 116 dira guztira hildako lezoarrak).

XXI. 1831-1840

(Epe honetan 133 dira guztira hildako lezoarrak).

XXII. 1841-1850

(Epe honetan 132 dira guztira hildako lezoarrak).

- 1844-ABE-9 *. **ALONSO MARTIERENA**. Sokoia inguruan, itota.
- 1849-MAR-1. **FRANCISCO OLASAGASTI**. Itsasadarrean, itota.
- 1849-UZT-7. **JOSE JUAN LEGORBURU**. Itsasoan.

ERABILITAKO ITURRIAK

1. ELIZBARRUTIKO HISTORI ARTXIBOA, Donostia.
2. HONDARRIBIKO UDAL ARTXIBOA.
3. LEZOKO PARROKIAR ARTXIBOA.
4. LEZOKO UDAL ARTXIBOA.

LANDER ZURUTUZA



GAITZAK ETA IZURRIAK

XIX. MENDEKO LEZON

Lezo eta orohar Pasaiaiko itsasportua aspaldidanik izan da hainbat itsasuntziren abiapuntu eta helmuga, gogoan izan erromatarrek hementxe hartu ohi zutela atsedean beren amaigabeko bidaietan. Baina erromatarrak joan ziren eta geroztik hainbat herritako jendeak gure kaian hartu izan du atsedean, bakoitzak berea ekarriaz, nork burnia, nork artoa eta nork bere gaixotasuna. Herrien arteko harremanen arriskueta bat inguru berezi bakoitzeko gaixotasunak kutsatzea izanda, zenbat eta harreman estuagoa arrisku handiagoa, beraz.

Lezo eta Pasaiaiko itsas portua arrisku honekin bizi izan da lehen itsasuntzi arrotzak gure atariraino etorri zirenetik. Arriskurik gorrienak Ozeanoaren bestaldeko herrien ondasunak Europaratzen hastean sortu ziren, bertako gaisotasunak guretzat guztiz ezezagunak bait ziren eta gure gorputza ez zen haiei aurre egiteko gai.

Pasaiaiko itsas portutik abiatu eta bertora itzultzen ziren Ameriketako bidean zebiltzan itsasuntziak (Gogora Pasaiaiko portua zela honetarako baimena zuen butxiatariko bat).



Lezoko Udal Artxiboan auzi hauen berri ugari topa dezakegu eta XIX. mendea bereziki aberatsa da honelako kontuetan.

1820. urte inguruan Europako zenbait itsas portutan izurria zabaltzen ari zela eta Madril nahiz Aldundiko lehen agindu bereziak. Luza gabe, 1821. urtean Pasaiaiko badian itsasuntzi ezezagun bat agertu zen, egunak egin zituen noraezean, batera eta bestera. Bertako marinela izurriak jota zeuden nonbait eta agintariek portuan sartzea galerazi zieten eta Pasaiaiko biztanleei inolako harremanik izatea debekatuaz. Ordutik aurrera Pasaiaiko nahiz beste edozein portutan lur hartu behar zuen itsasuntzi orok osasun agiria erakutsi beharra zeukan.

ART. 10º. Ningun buque procedente de los puertos de Francia, ó de otros estrangeros, tendrá entrada o será admitido á libre plática en los Puertos de esta Provincia mientras no traiga la patente de sanidad legalizada por el Cónsul español del distrito de su procedencia, y en defecto, de otro Cónsul español más inmediato. Las embarcaciones procedentes de todas las Provincias litorales de España serán admitidas con que traigan sus patentes de Sanidad espedidas por las Juntas locales de su respectiva procedencia. Yaun los barcos, ó lanchas que navegan de unos Puertos a otros de esta Provincia, sea en el tráfico de cabotage, ó, con cualquier otro motivo, habrán de llevar precisamente la Carta de Sanidad, despachada por la Junta Subalterna del Puerto de su salida.

1823. urtean atzera berriz izurrite soinua zabaldu zen, Azkoitian bilduta zegoenaldundiak Lezoko kaia istea erabaki zuen Pasaian zabaltzen hasia zegoen gaitza Lezon sar ez zedin. Lezon sartu nahi zuen itsasuntzi orok osasun agiriak behar zituen eta epe jakin batez kuarentenan egon beharra zeukan. Baina zaintza neurriak ez ziren hemen amaitu, Lezo eta Donibane lotzen dituen bidea itxi egin zen bertatik iragan behar zuen edonor zorrotz-zorrotz aztertzen zutelarik, honi «Pasillo de sanidad» deitu zioten garraio agintariek.

Egoera hauek urtero errepikatzen ziren eta urtero hartzen ziren honi aurre egiteko arau berak. Dena den, 1821 eta 1832. urteak bitartekoa nahiko lasaia izan zen, ez dago behintzat izurriteen berririk larrialdi deiez gain. —1829. urtean Hondarribian nafarrerria izurrite batek indar handia hartu zuen eta Lezon arretea berezia jarri behar izan zuten izurritea herrira zabal ez zedin—.

Izurriteen auzi honetan txertoak izugarritzko aurrerapausoa izan ziren baina ez dirudi orduko sendagileak eta euskaldunek gogo berezia zutenik hau hartzeko, hala adierazten du behintzat 1830. urteko Aldundiaren agindu batek.

El paternal Gobierno de S.M., solícito siempre en procurar cuantos beneficios se puedan á sus vasallos, asi: que evitar males; despues de convencido de los resultados favorables de la vacuna, se sirvió expedir las correspondientes ordenes para su introducción en este Reino de España, y son repetidas las que ha dado sucesivamente para su propagación imponiendo á los médicos y cirujanos obligaciones sobre este particular, y facultando á las Autoridades para que, aun por la fuerza y rigor de la ley, compelan á la vacunación á los que resistiesen por cualquiera causa que fuese.

1832. urtean Europa mendebaldean eta Parisen bereziki gangeria edo kolera asiaticoak indar handia hartu zuen. Gaitz honi beldur handia zioten agintariak eta ordurarte inoiz hartu gabeko neurriak hartu zituzten (Herri batzordeak antolatu, txertaketa agindu, gaitzak jotakoentzat herritik kanpo zeuden eritetxeak sortu, kaleak eta etxe barrenak garbi arazi,...).

Garai hartan hartutako neurri bitxien artean gartzelak ustutzea izango da inondik ere guretzat deigarriena. Jakina zen (Eta zoritxarrez gaur egun oraindik ere da) gartzelatan osasun baldintzak hutsaren hurrena direla, honela bada, epaiketa eta lege prozesuak bizkortu zituzten alde batetik eta bestetik gartzeletako egoera hobetzeko asmoa hartu,...

en estos dias en que el Cólera, morbo aflige á algunos de sus pueblos, y se hallan otros expuestos á sufrir tan horrible enfermedad, ha sido el considerable número de presos que se hallan detenidos en las cárceles, las salidas de las cárceles de los reos que estén ya sentenciados.

Que en la parte que corresponda á la Autoridad judicial, vigilen con esmero los Magistrados y Jueces sobre la limpieza de aquellas buena calidad de los alimentos que se den a los presos.

1885. urtean gangeria atzera berriro sortu zen Europa mendebaldean eta garai hartan hartutako neurriek ez dute alde handirik erakusten 50 urte lehenago hartuziren haietatik. Hala ere oraingoan, lehenagokoan ez bezala, gure inguruan zenbait kasu izan ziren eta Lezon, hain zuzen, Gaintxurizketako Abendaño baserrian izan zena. Antza denez, haur bat gaitz honek jo zuen eta zalaparta ugariren ostean baserri osoa, goitik behera desinfektatzea agindu zuten orduko osasun agintariak.

1887. urtean Gipuzkoan pixkanaka zabalduz zihoan txarranpin izurritea apirilean iritsi zen Lezora. Izurriteak bi hilabetez iraun zuen Lezon sei haur hilaz.

Ondorengo urteetan orduan hain larriak ziren gaitz hauen kasu bat baino gehiago izan zen urteren batean edo bestean, baina ez dirudi mende hasieran adinako larrialdirik izan zenik. Orduko osasun txostenetan txarranpina, difteria, tifus eta amorrua aipatzen dira gaitzik larrien bezala.

Hauxe da labur bada ere Lezoren historiak izan duen ataletako bat, orain artean gorderik izan duguna baina gogoan izan beharrekoa.

ERNESTO GUARDIOLA



Sorginak, juduak eta agotak izaten ziren izurriteen errudun herriaren ustetan.

EUSKARARIK GABEKO HAURRIK EZ!!

Matrikulazio kanpaina dela eta ez nuke pasatzen utzi nahi LEZO aldizkariak eskaintzen didan aukera hau euskararen beharra aldarrikatzeko, erabiltzen ez den hizkuntza hila bait da eta gure hizkuntza bizirik nahi dugunez, ezinbestekoa da guztiok euskalduntzea.

Eta gaian sartu aurretik, ahaleginduko naiz elebitasunaz zer ulertzen dugun adierazten.

ELEBITASUNA

Elebitasun indibidualaz ari garelarik hots, pertsona elebidunaz alegia, bere lehenengo hizkuntzaz gain beste edozein hizkuntzatan antzeko gaitasuna izatez gainera erabiltzeko gaitasuna duenez mintzo gara. Beraz, pertsona elebiduna bi hizkuntz sistemen jabe dena litzateke, biak berdintsu erabili beharko lituzkeelarik.

Baina gauza nabaria da hizkuntzen jabetza inoiz ez dela maila bertsuan ematen, hau da, elebitasun orekaturik ez dagoela, elebitasun maila desberdinak baizik. Hala nola; bi hizkuntzen arteko hurbilketaren arabera; hiztun bakoitzaren bizitzan hizkuntzok betetzen dituzten funtzioen arabera; noiz-nola erabiltzen dituen eta zein maiztasunez; zer-nola ikasten dituenaren arabera, ... e.a.

Beraz, elebitasuna beti norbanakoari, pertsonari loturik doan gaitasunari daituko diogu eta inoiz ez dugu erabiliko gizartearen egoera adierazteko, ez bait

du zerikusirik gizartearekin, gizarteak ez direlako inoiz elebidunak gizakiak baizik.

Hobeki ulertzeko eta adibide gisa Euskal Herria harturik zera dakusagu: elebitasunaren erabakia guztiz erabaki politikoa dela, hots, begi bistakoa bait da elebitasuna ez dela sortzen halabeharrez, elebitasuna beti minorizazioarekin loturik doalako historian zehar, hori argi eta garbi ikusten dugu gure herrian. Estatu espainolean gaztelania ez beste edozein hizkuntza hitzegiten duen komunitatea (euskaldunak esate baterako) minorizaturik eta zapalduz gertatu denean sortu da elebitasuna (inmigrazioa dela medio, demografia, ekonomia, ...e.a.), orduan, hizkuntz zapaldu hori bigarren mailara pasatuz.

Horrela, bigarren mailako hizkuntzako hiztunak elebidun bilakatzen garelarik eta lehenengo mailako hizkuntzako hiztunak (nolabait esateko) elebatar izaten jarraitzen direlarik.

Eta kontutan izanik gure herrian elebatar horiek gehiengoa direla elebiduntzeko garaian neurri zehatz eta sakonak hartu beharko ditugu, orduan besterik ez bait da Euskal Herri euskalduna izango.

Ikus dezagun nola eta zein modutan izan daitekeen elebidun:

a) Lehenik eta behin eta ezinbestekoa da bigarren hizkuntza lehendabizikoarekin ikastea, edota, bigarren hizkuntza zerbait geroxeago ikasten bada ere, beti, haurtzaroan ikasten denean; hortik bada, eskolak duen garrantzia.

Orain arteko esperientziek eta ikerketek erakutsi eta baieztatu dutenez bi hizkuntzen artean hizketan ikasten ari den haurrak inolako zailtasunik gabe ikasten dituela eta bi sistemak ongi bereizten dituela, egoeraren arabera hizkuntza batetik bestera pasatuz. Hau da, haurrak bi hizkuntzak menperatzen ditu, bietariko edozeinetan pentsatzeko gai delarik.

Hori horrela bada, elebitasun orekatuena haurtzaroan ikasten denean lor daiteke eta ez bestela.

Aipagarri da bestalde, haurrak hizkuntzak ikasteko duen erraztasun maila, bizitzako beste garaitan ematen dena baino askoz handiagokoa baita da haurtzarokoa eta hizkuntzak baditu arlo batzuk haurtzaroan ikasi beharrekoak; ahozkerak, entonazioa, ... e.a. heldutakoan nekez ikasi daitezkeenak.

b) Elebiduntzeko beste modua zera litzateke; elebazarreko familian hazi den haurra, beste hizkuntza batean eskolatzten denean. (Hau izango da hemen gehien ematen den kasua eta geroxeago mintzatuko gara honetaz).

d) Beste hirugarren bidea, haur euskaldunen kasua litzateke, hots, etxean eta eskolan hizkuntza bera erabiliagatik, inguruko hizkuntza nagusia bestea delako (gaztelania-frantsesa), elebidun izatera iristen garenean.

Beraz, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren arabera izango dugu heziketa elebiduna ere. Zergatik?

HIZKUNTZ EREDUAK

Euskal Herrian bizi dugun hizkuntz ukipen egoera ez delako maila berekoa; euskara eta gaztelania biak dira ofizialak

baina status desberdinekoak. Hitz gutxitan adieraziko dut. Gaztelania herri guztiak darrabilen bitartean euskara gutxi batzuk erabiltzen dugulako. Hortaz aparte, gaztelaniak, hizkuntza batek betetzen dituen funtzio guztiak betetzen dituen bitartean, euskarak ez.

Beraz, euskara ofiziala izanagatik erabilpen urria du eta azken urteotan ahaleginak egin arren oraindik ere desabantaila handian dago euskararen

funtzio sozialen protagonismoa gaztelaniarekiko.

Dena den, gaur egun euskararen berreskuratze prozesuan murgildurik gaudenez urrats batzuk ematen ari gara piskanaka piskanaka bada ere eta irakaskuntzan batipat.

Irakaskuntzan, neurri horiek lege zehatzetan isladatzen dira eta horien baitakoak dira irakaskuntza elebiduna aipatuz 1982ko Abenduaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argi-



taraturiko «EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGE»aren II ataleko 16.2 artikulua zioena: La Constitución y el Estatuto de Autonomía confían a los poderes públicos de la comunidad autónoma vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y la normalización del uso del euskara».

Geroago, 1983ko Uztailaren 19an argitaraturiko E.H.A.A.n 138/1983 dekretua zela medio, arestian aipaturiko lege hori garatu zen. Eta bertan oinarritutakoa dugu egungo hizkuntz eredu buruzko legedia.

Ondoren ikusiko dugu zer dioten ereduok.

A Erdua

Gai guztiak —euskara ezik— gaztelaniaz irakatsiko dira. Euskara beste edozein gai gisa irakatsiz, hau da, astean 4 orduz. Eta ikasleak euskararen erabileran behin ohituz gero, OHOk goi mailetan euskaraz irakatsiko zaie beste zenbait gai.

Eredu hau erdal giroko haur erdaldunentzat pentsaturik dago eta bere helburua, euskararen oinarrizko ezagutza lortzea da.

Baina eredu hau ezarri zenetik hona ikerketa ugari egin ondoren argi eta garbi ikusi dugu ez duela bere helbururik betetzen, hitz batez, ez duela euskalduntzeko balio. Ondorioz, begi bistakoa da eredu honek urtez urte jasaten duen ikaslegoaren murrizketa, ikaslegoaren gehientsuak B eta D ereduak hautatzen dituelarik.

B Erdua

Eredu hau ikaslegoaren jatorri erdaldunean oinarritzen da, irakurketa-idazketa, matematika,... gaztelaniaz irakasten zaielarik eta gainontzekoak euskaraz.

(Hezkuntza Saileko «Eskolaurreko Orientabideetan diotenez, eskolatzearen 4. hilabetea bukatu baino lehen ikastaroa bi hizkuntzetan jarraitzeko trebatuak egon beharko dutelarik, hots, egun erdia gaztelaniaz eta beste egun erdia euskara egiteko gai izan beharko dutelarik eta gainera, euskara sistematikoki egunean 30-45 minutuz landuko dute.

Eredu honi dagokienez, esan behar dut ikastetxe bakoitzak bere erara antolatzen duela, hau da, eskualdearen arabera, edota, haurren euskara ezagutzaren arabera, edota, ikastetxe beraren ezaugarrien arabera, beraz, zenbat ikastetxe hainbese B eredu aurkituko ditugu.

Bestalde azken frogek diotenez eredu honek ere ez du euskalduntzen erabat. Ezinezkoa bait da irakurketa-idazketa erdaraz eginez euskara hutsez egiten dutenen gaitasun maila berbera lortzea.

Beste akatsa zera litzateke; A, B ereduak giro erdaldunetarako haurrentzat eta D eredu euskaldunentzat bereizteak, hizkuntzen aldetikako diskriminazioa bultzatzen du eskola bertatik, bi gizartemota eginez; euskalduntze prozesua desbideratuz.

D Erdua

Eredu honetan —gaztelania ez-beste gai guztiak euskaraz irakatsiko dira eta euskara bera ere gai bezala landuko delarik. Eredu hau Ikastoletan eta beste zenbait Herri eskoletan ematen dena da.

Beraz, horiek horrela, eztabaida ugari sortu izan da elebitasunak lehenengo hizkuntzan duen eraginaz edota, elebitasunak adimenean dituen ondorioez, eskola emaitzetan, e.a. eta baita, heziketa elebidunaren abantaila eta eragozpenei buruz ere.

Eta orain arte bederen European, Estatu Batuetan edota Kanadan bertan eginiko

azterketetan frogatu denez, bigarren hizkuntzaren jabetza, irakaskuntz-hizkuntz horretan emanez lor daitekeela diote eta ez bestela, zeren eta bigarren hizkuntzan ematen den irakaskuntzak (gure kasuan euskaraz) euskara hutsez eskolaturiko haurrari ez bait dio inolaz ere arriskutan jarriko edo murrizketarik sortuko bere lehenengo hizkuntzan, askoz ere indartsuago eta prestigio handiagoko hizkuntza delako.

Aipaturiko ikerketa eta esperientziak honoko puntu hauetan oinarritzen dira:

a) Zenbat eta lehenago hasi hizkuntza ikasten orduan eta hobeto ikasiko du haurrak, haurraren garunak ikasteko duen malgutasunari esker.

b) Zenbait ikasketa mota haurtzaroan ez bada ikasten, gero askoz ere zailagoa dela begi bistakoa da, hortik, elebiduntze goiztiarraren garrantzia.

d) Frogaturik dago pertsona elebidunak beste hizkuntza gehiago ikasteko duen erraztasuna.

e) Hizkuntza bat ezagutzeak berarekin darama egitura mentala ere, hau da, hein handi batean ahoz pentsatzen dugunez, hizkuntza, ekintza intelektualean bilakatzeko da, beraz, pertsona elebiduna bi komunikabide edota, bi tresna intelektualen jabe denez, pertsonaren garapen posibilitateak ere areagotu egiten dira.

g) Gainera, hizkuntza kultura baten ezaugarria da eta hizkuntza ikastearekin batera haurrak kultura horri buruzko informazioa jasotzearekin aberastasun handiagoa lortzen du.

AZKENIK

Puntu horiek gogoan hartuz, egokiena izango litzateke, haurra bigarren hizkuntza horretan murgiltzea, horrela besterik ez delako euskaldunduko; haur euskaldunak eta erdaldunak gutxieneko ezagutza

maila berdinean batera heleraztea duelako helburutzat, hizkuntz horren erabilera izanik aldi berean jomuga, helburu eta bitarteko.

Bestalde, murgiltze prozesu horrek irakaskuntza eta euskararen arteko erabateko identifikazioa eskatzen duenez, euskara izango da erreferentzia bakarra.

Jakina, murgiltze prozesua aurrera eramateko tenorean baldintza minimoak ere esijitu beharko ditugu, hala nola, irakasle guztia euskalduna; haur kopuru egokia; ikasketa denboraren kalitatea; klase emankizun mota; ingurugiroaren nolakotasuna, motibazioa, e.a.

Guzti hori jakinik, galdera bat bururatzeko zait: **Zergatik ukatu behar diogu haurrari horrelako aukera?**

ETA BUKATZEKO

Ez dezagun ahaztu helduok hartzen dugun jarreraren arabera izango dela haurraren arrakasta edo porrota ikasketa prozesu osoan eta bigarren hizkuntzaren ikasketan batipat.

Haurra guraso eta irakaslearekin erlacionatzen da gehienbat eta gu helduok zenbat eta gehiago arduratu gure seme-alaben ikasketetan, orduan eta gehiago eta hobeki ikasiko dute; hori frogaturik dago. Beraz, gure jarreraz heziketa orokorrean harturik eta hizkuntzaren jabetze prozesua baldintzatzen ari gara.

Ezinbestekoa da; ikasten ari diren hizkuntza baloratzea eta interesa agertzea gure aldetik, galderak eginez, berarekin batera ikasiz.

Gaurkoz besterik ez, labur bada ere arrazoin batzuek agertu nahi izan ditut «EUSKARARIK GABEKO HAURRIK EZ!! esaldia baieztatu nahirik.

AGUSTINA PONTESTA

LA HISTORIA INTERMINABLE

A estas alturas todos nos preguntamos ¿desde cuando llevamos con el asunto del edificio escolar?

No en balde han pasado ya 10 años y la memoria se nos va difuminando, vamos pues a dar un repaso.

En primer lugar debemos decir que la necesidad de nuevos centros escolares se basa principalmente en dos factores:

1.- La implantación de los modelos «D» y «B» supone la necesidad de un mayor número de aulas.

2.- La mala situación del edificio de Pildain (Herri-Eskola).

Hace ya aproximadamente 11 años que se inauguró el centro de EGB «Joanes Etxeberri» y en estos años se ha completado toda la línea «D» en la enseñanza (3 cursos de pre-escolar y 8 de EGB).

No hace falta decir que las primeras gestiones se vinieron manteniendo con el departamento de educación hasta conseguir que se aceptase nuestra solicitud de construir los nuevos centros escolares en Lezo.

Alla por el curso 89/90 se nos propuso desde delegación la remodelación del centro Pildain (a pesar de la negativa de los padres que deseabamos un centro nuevo) se acepto no obstante dicha remodelación pero, tras una segunda revisión del edificio por parte de técnicos de delegación se llega a la conclusión de que efectivamente, es mejor hacer un edificio nuevo.

Aquí comienza el meollo de la cuestión, ya que entra en juego el Ayuntamiento de Lezo.

Tenemos en ese momento a HB-EA

que son los que participan de lleno en las negociaciones con el Dpto. de educación (junto con la Asociación de Padres y Profesores) para conseguir el proyecto del nuevo edificio y asentarlo definitivamente en la zona denominada «sistema general 1» de Lezo. Cuando ya por fin tenemos todo el proyecto realizado, a falta de la aprobación del Ayuntamiento, se rompe el consenso HB-EA, quedando HB sin la mayoría absoluta que se precisa para llevar adelante este proyecto.

Desde esta escuela se llama a todos los partidos políticos a una reunión en donde exponemos nuestra urgencia y necesidad de llegar a un acuerdo para solucionar este conflicto / **todos nos muestra su apoyo** y nos prometen llegar a un acuerdo solo para sacar adelante la escuela.

Tras varios plenos extraordinarios y ya en vísperas de las nuevas Elecciones Municipales se da la aprobación definitiva al proyecto escolar (**ha pasado otro año**).

Al comienzo de este curso escolar 91/92, pedimos a alcaldía información sobre la situación del proyecto escolar, indicándonos que le encuentran «ciertas pegas», algunas estéticas, otras urbanísticas, etc... nuestra sorpresa es mayúscula y nos preguntamos ¿cómo nos pueden hacer esto ahora?...

Como desde el ayuntamiento no se nos aclara nada, nos ponemos en contacto con el Departamento de Educación donde se nos indica que el proyecto esta paralizado en el Ayuntamiento de Lezo a falta de la «licencia de obras».

Otra vez volvemos a las «negociaciones»...

Llamamos a todos los partidos políticos (solo acude HB), pedimos una moción en un pleno extraordinario y allí, tras las presiones de este colectivo, se acepta la creación de una comisión con representantes de todos los partidos políticos del Ayuntamiento y de la Escuela.

Estamos ya en el mes de febrero-92 y se nos presenta por parte de la comisión de Gobierno del Ayuntamiento un boceto para la elaboración de un **nuevo proyecto escolar**.

Se nos dice que la nueva corporación tiene derecho a sacar «su propio proyecto».

La asamblea de padres y los claustros de profesores de «Herri-Eskola» y «Joanes Etxeberri» apoyan mayoritariamente al proyecto anterior.

Ante esta situación en la reunión del 9 de abril se presentan casi 1000 firmas de apoyo al proyecto anterior y como el ayuntamiento sigue en su idea de hacer otro, los padres y profesores abandonan

dicha reunión.

Posteriormente, a finales del mes de abril, nos enteramos (extraoficialmente), que se ha convocado un pleno para el cambio de «normas subsidiarias» que afecta directamente a nuestro proyecto escolar. A dicho pleno acuden profesores y padres y, sin ninguna posibilidad de dialogo, se aprueba el cambio de normas con la única negativa de los corporativos de HB.

Ahora, estamos peor que hace 2 años, ya que nuestro proyecto ha quedado definitivamente relegado y el otro todavía se esta «preparando»???

Desde la escuela tenemos claro que se nos ha engañado y utilizado.

Lo que pase de aqui en adelante sera ya otro capítulo a contar de esta ya **HISTORIA INTERMINABLE**.

**HEZIKINTZA GURASO ELKARTEA
ASOC. DE PADRES «HEZIKINTZA»**

GARAI BATEKO BERTSOLARIAK LEZON

Urtero bertsolariak bere leku berezia izan dute gure jai nagusietan eta beste zenbait ospakizunetan. Jakina denez, joera hau aspaldidanik dator, baina oso gutxitan azaltzen dira bertako bertsolariak, hau da Lezon jaiotakoak saio hauetan kantari.

Aipamen berezia merezi duen bertsolari bat jaio zen Lezon, baina ezarriak laguntzen ez ziolako edo plaza-gizon sentitzen ez zelako, bapateko bertsogintzan baino gehiago, bertso idatzietan nabarmendu zen, nahiz eta 1935. urteko Bertso Txapelketan parte hartu.

Juan Jose Sarasola Azkue «Lexo» (1867-1952), Gaintxurizketako Irurtzun baserrian jaio zen, Donostian aritu zen lanean kale garbitzaile bezala, eta berak zioenez «bertsoa beste pentsamendurik» ez zuen buruan.

Juan Josek gai asko erabili zituen, bertsoak askotan «Besamotzari» ematen zizkion eta honek kalean saltzen zituen. Bere lan mardula, Auspoa liburutegiko 79-80-81. zenbakietan bilduta aurkitzen da.

Hona hemen bertso jartzaile oparo honen aurkezpen modura aukeratutako bertsoa:

Ni naiz bertsolari bat
pobrea jatorriz,
edozeinek berdintzen
ez nau etorrit;
gauzak esango ditut
itxuraz ta neurrit,
nola tatxatzen naizen
kontu lotsagarrit;
aitortzen det egiz:
tristea naiz begiz,
eskasa eztairit
ta eskolan aprendiz;
ikasteko sasoa
joana det berriz.

Aipatutako auspoako bilduma horretan, beste bertso hau aurkitu dugu bere komentario eta guzti:

«Garai hartan oitura zan bezela, jai-arratsalde batez, Lexo fa bere lagunak neskatxetara joan ziran baserri batera. Aitak ordea, atalaiarekin bialdu zituan, hau da atea ixteko erabiltzen zen trankarekin. Ta Lexok bertso hau bota zuan orduan».

Danak izaten dugu
dibertitu naia,
gaztiak ibiltzeko
egina da jaia;
etorri balitzaio
gustoko galaia,
etzuen dantzatuko
aitak atalaia.

Urtero, lehen esan dudan bezala herriko festetan bertsolariak Lezo aldera inguratzen ziran, eta honen adierazgarri Kortazar, Uztarri eta Errekalde Zaharraren bertso batzuk azalduko ditugu. Kortazar eta Uztarri, Azkoitia-Azpeitia aldeko bertsolariak Santa Krutzak zirela eta Lezora zetozen, garai horretan bidea oinez egiten zen eta Zizurkildik pasatzerakoan Otañoren etxean bertso saio koxkor bat burutu zuten.

Kortazar (1.838-1.900)

Kortazar eta Uztarri
elkarren lagunak,
gaztetikan gera
oso ezagunak;
Orain nola diraden
Lezoko egunak,
gu gera etortzea
pentsatu dugunak,
laguntzen badigu
Jesukristo Jaunak.

Uztarri (1.841-1.899)

Bizkarrian txamarra,
eskuan makila
Santa Krutz bezperarekin
gatoz Zizurkila;
Lagun bat badet hemen
kantari habila,
apropos erten dugu
kontrario bila,
hortako denik bada
azaldu dedila.

Errekalde Zaharra

Kortazar eta Uztarri
honera etorrita,
asko alegratzen naiz
zuek ikusita:
Andriak ta umiak
etxian utzita,
zer pentsatzen dezute
horrela hasita?
Gauza horri ez nago
ondo iritsita.

Juanito Dorronsororen «Bertsotan» liburuan beste pasarte berezi hau aurkitu dut:

Garai hartan ere ba omen ziren bertsolari traketsak. Juxto eta Lonjinos izeneko bi behintzat. Bertso hain baldarrak kantatzen... eta jendeak txalo ugari jotzen ziela eta,

zerbait bazirela uste haiek ere... eta behin Juxtok Xenpelar sonatuari apustu egin omen zion, Lezon, Santa Krutz jaietarako: «ea nork botatzen zituen bertso aldrebesagoak».


Jendetza bildu zen Lezoko plazara. Aldrebeskeria haundienak kantatzen zituenarentzat txalorik beroenak. Hori zen egun hartako legea.

Hasi ziren, ba, biak kantari. Baina Xenpelarren gauzarik aldrebesenak ere hain egoki eta apain loturik moldatzen... eta Juxtoarentzat izan ziren txalorik haundienak. Hura jendearen gozamena!

Xenpelar

Aranon sortu dira
hamalau nobio:
zortzi konpiteruak
sei botikario.
Seiña kintalekuak
hamar armario,
gizon batek «a pulso»
bizkarrian io...
arrazoi honi kontra
nork egingo dio.

«Lexo» 1897-1952



Juxto (2)

Kontzientzia ona dauka
Lezoko jendiak...
Askoz hobia ez balu
Gurutze Santuak;
askoz hobia ez balu
Gurutze Santuak;
Urrikari dizkiet
pertsona pobriak.

Xenpelar (3)

Itsasuan ari dira
arbolak aldatzen;
itsuak ikusi du
etxia erretzen;
hankamotzak badaki
bidia korritzen,
mutua dihadarka
jendiari deitzen.

Juxto (4)

Eguarri eguneko
joaiera tristia:
lo geniken bapo egin
Jaunari graziak.
Goizian jeiki eta
gosari txikia;
zortzitako denboran berriz
txokolate ona;
hamarretako denboran berriz
gosari ez txarra...
Hasi ziradenian
Hala ta honela,
pakiak egitea
etorriak gera.

Xenpelar (5)

Gizon bat ikusi det
hirureun urtetan
mariñel dabilela
ontziko sokeran;
zapat'ordez zituen
txalupak oinetan...
Haren aitona berriz
itsasora urketan.

Juxto (6)

Itsasora juan eta
espantaturikan,
etzegola kañoirik
hainbeste barkontzat.
Gizon haundiak eta
zipilladoriak,
itsasoko arraien
abertsariuak.

Xenpelar (7)

Txantxangorri batenak
sei libra tripaki;
txingurri batek berriz
zazpi arto jaki.
Bahiak iriña eiho,
errotak iralki,
ganibetak erre ta
labiak ebaki...
hoien madria nun dan
Xenpelarrek daki.

KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA

ELIAS SALABERRIA OROITALDIAREN ONDOREN ZER?

Elias Salaberria pintura erakusketa iraileko SANTA KRUTZAK jaietan burutu ohi bada ere, azken aldi honetan oroitaldia Gabonetan ospatu da. Izan ere, antolatzaile batek jakin arazi digunez, horrela denbora luzeagoz, oporraldia aprobetxatuz, edozein Lezoar hurbil zitekeen bertako lanak ikustera:

«Jendea ez dago erakusketak ikustera joaten ohituta. Gabonak izanik, asti gehiago eduki lezake Andreone-ra etortzeko. Erakusketan Lezoar gazteon lana ikusi da batipat. Erakusketan aurkeztutako lanaren bariedadeagaitik aberatsa gertatu da. Politta izan da Lezoko artistok zertan gauden jakitea, errazenean gelditu bagara ere. Hau da, urtean behin ospatzen den oroitaldiaren inguruan bildu gara. Errazena kuadroak zintzilikatzea da. Zein jatorra litzatekeen, udalak aretoren bat eskainiko baligu eta elkarrekin, zenbait egitasmoren inguruan, tailerrean lan egingo bagenu. Xenpelarren bezala biltzea fenomeno litzateke. Pena bat da Elias Salaberria oroitaldia urteko ekimen bakarra izatea».

Lezoar artista honek, bere izena ezkutuan gordea izan dadila nahi izan du baina garbi adierazi digu pintatzea, oso erraz geldi litekeela lan pertsonal edo partikular batetan:



«Etxean edo kanpoan margo daiteke, baina lekuren bat izan gabe, koordinaketa minimorik gabe alegia, zaila da elkarrengandik ikastea, bakoitza zertan ari den jakitea e.a.»

Bestalde, arteaz gehiengoak dugun eritzia argitu eta zabaldu nahi izan digu:

«Arteak ez da kuadroak nonnahi zintzilikatzea bakarrik. Arteak jendea hezi behar du, probokatu, eritziak sortarazi. Arteak ez da ulertzea ala ez ulertzea; gustatu behar du. Arteak bizia izan behar du eta zentzu horretan, ezin du oihal batetara mugatu. Gure artean bizi behar du, kaleetan, gugandik gertu. Arteak ez da nahitaez altxor partikularra, elitista, garestia. Arteak alde askotatik enfoka daiteke. Oihalaren helburua horman zintzilikatzea da, etxean ala erakusketan. Oihalaz aparte, murala, papera, karbontziloa, kartelak, kartoia, egurra, zernahi erabil daiteke. Artista izateko ez duzu marka oneko tubo guztiak eduki beharrik ez dizute inon erakutsiko txorizoaren margo daitekeela. Iniziatiba, sormena, gogoak behar da aurrera egiteko».

Zentzu horretan, basatikeria deritzaio muralak ezabatzea:

«Graffiti arte bezala ikasten da karreran, Muralak egitean, herri edota pertsonengan sortutako sentazioak kanporatzeaz gain, dekoratzea da helburua, hau da, mundu gris hau alitzea. Hiri handietan, Bilbon esaterako, mural ederrak daude. Ez dut ulertzen nola ezabatu dituzten Lezon. Hori ere debekatzea... astakeria da edozein mural ezabatzea. Mural bat pentsatu eta egitea izugarritzko lana da, gero hain erraz hankaz gora jartzeko. Ziur nago herriari muralak gustatzen zaizkiola. Udaletxeak ez ditu gauzak ulertu. Murala ezabatzea, tatxoi grisa gainean jartzea, itsusiagoa egitea! Konponbidea ez da tatxoi grisa desegokiak han hemenka jartzea».



Galdetu diogu bere eritziz, zergatik ote diren artistak hain gutxi; futbolari, txirrin-
dulari... e.a. hainbeste direnean:

«Nik uste dut hori, batez ere, jendeak oso gutxi eskertzen duela gertatzen da. Edozein
arte lan egin ondoren, jendeak horrelako komentarioak egiten ditu: «Hori, nik ere
egiten dut», «zuri erraz ateratzen zaizu» Ai zer politta!».

Orokorrean, jendeak ez du ikusten, bertan, ausnartzen sartutako orduak, burutzen
egindako ahaleginak. Jendeak pentsatzen du guk abilezia hutsa dugula, guretzat ez dela
buruhaustea, ez dagoela nekerik, lanik. Hori entzutea gogorra da».

Bukatzeko, zer iruditzen zaizu Trapujaleren istorioa?

«Ongi dago, batez ere haurrei begira, nahiz eta honek antolakuntza aldetik kristoren
prestaketa eskatu hasieratik bukaerara. Ihauterietako istorioa goitik behera antolatua
da. Umeez badakite gaur gorria, horia ala beltza den, baita esanahia ere. Gazte eta
helduentzako, ez dakit...».

ANDONI TREKU

EPERTXOKO: BERPOBLAKETA BATEN SAIAKERA

Urtetik urtera Jaizkibelen dirutza bat gastatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik berpoblaketa bat aurrera eramanez. Hala eta guztiz ere arrazoi askok, hala nola produktibitatean oinarritutako berpoblaketa bat bultzatzeak, landaketa moduak, zuhaitz desegokiak landatzeak eta landatutako zuhaitzek gero sute edo ardien aurrean duten babes ezak, berpoblaketa honek emaitz onik ez ematea lortzen dute.

Lezoko ekoloji taldeak, nahiz eta aspalditik Jaizkibelen zenbait landaketa burutu, joan den urtean hektarea bat berpoblatzeko apostuari heldu zion, metodo eta era desberdinak erabiliz, landare mota batzuk bertan hazitik sortuz eta mendiaren berezko berpoblaketa naturalari bultzada bat eman nahirik. Hau da EPERTXOKOREN berpoblaketa. Emaitzak ikustean beste eremuetan ere aplikagarria litzatekeen berpoblaketa mota bat izan liteke.



Gure ingurua egunetik egunera okerrago dago. Naturaren txikizioa orokorki eta zuhaitz eta landareena bereziki izugarria den bitartean oso eskasak dira jarrera hori gelditu eta aldatzeko ematen diren pausoak. Gai honekin kezkatuta ekoloji taldeak bi urte daramazki Epertxokon.

Alde batetik galtzeko zorian dauden bertako zenbait espezieren errekupeketa lortu nahi da, beti ere naturaren antzekoena egin nahian, hau da berpoblaketa naturala bultzatuz.

Bestalde, Jaizkibelen adibidez, berpoblaketa bat gogo eta borondate onez eta diru kopuru haundirik gastatu gabe lor litekeen gauza da. Baina eginbehar hori ez da administrazioarena bakarrik, jende guztiarena baizik. Administrazioak medio teknikoak jarri beharko lituzke eta honelako inizatibak bultzatu.

Oso garrantzitsua da baita ere jendeak honelako gauzen aurrean galdu duen sentibilitatea. Heziketa bat behar dugu nahiz haur nahiz helduek eta piskanaka hori berreskuratu behar da.

Ekoloji taldeak frogak egin, experimentatu eta ikasitakoa praktikan jarri eta jende gehiagori erakusten ahalegintzen da. Bai epertxokon eta bai beste lekuetan egindako lana edonori erakusteko prest gaude (Euskaltegietako jendeari, eskolei, hauzo elkar-teei...). Gurekin kontaktoan jarri besterik ez dute.

ZER DA BERPOBLAKETA NATURALA?

Berpoblaketa naturala mendiaren prozesu naturala errepikatzea besterik ez da, ahalik eta berdintsuena eginaz baina era berean laguntza bat emanaz. Berpoblaketa ekolojiko honetan oso kontutan hartu beharko dena zera da: «elementu bakoitzak, hau da, lur mota, eguraldia, haizea, ongarriak, etab... bere funtzio edo papera betetzen dutela naturaren osotasunaren barruan oreka bat mantenduz».




Bertako zuhaitz motak landatzeak, galtzeko zorian dauden zenbait zuhaitz mota errekupeatzeko aukeraz gain, inguruko klimaren aurrean hoberen erantzungo dutenak izango dira.

Landaketa moduak ere badu bere garrantzia: Zuhaitz mota batzuk adibidez (artea, aritza...) hazitik leku berean sortzeak honako alde onak agertzen dizkigu:

1.- Inguruan txiki txikitatik adaptatuko dira bai lur motara bai egu-

raldira. Lekuz aldatzeak lur, haize, klima berrietara adaptatzera eskatzen du eta honek landareari zailtasun bat suposatuko dio.

2.- Bertan ereindako landareek sustrai sendo eta sakonagoak dituzte, lehorte eta-barri aurre egiteko indartsuagoak. (Ikus ondorengo irudia).



Monokultiboaren akatsak ere nabarmenak dira. Landareen barietateak berriz, basoa aberasten du, maila guztiak kontutan harturik (belar, iratze, zuhaiska, zuhaitz, etab). Aberastasun honek plaga edo gaixotasunei aurre egiteko gaitasun gehiago dauka. Zuhaitz guztiak berdinak badira oreka naturala hautsita dago eta edozein gaixotasunek baso osoa pikutara joatea suposatuko luke (pinuaren adibidea oso adierazgarria da).

Epertxokon, alde batetik berez sortutako zuhaitz gazteak garatzen joango dira eta beste aldetik zuhaitz eta landare berriak bertan ereintzen dira.

«Humus»a edo ongarrri naturalak ere garrantzi izugarria du.

ONGARRI NATURALA EDO «HUMUS»a

Humusa zuhaitzen elikadurarako nahitanahiezko sustantzia da, landare eta mikrobioen deskonposaketaren ondorioz sortua. Lurra aberasteaz gain, eguzkitik babesten du hezetasuna mantenduz. Humusa lur aberats baten adierazgarria da baina zoritxarrez Jaizkibelen, arrazoi askogatik (baso mozketak, suteak eta hauek eragindako erosioa...) piskanaka galtzen doa. Gizakia da erruduna. Humus ugariz, lurra mikrobio ugariz beteko da, zuhaitzak behar dituen elementu ugari sortuz.

Honela bada, beharrezkoa da zuhaitzei humus hori ez kentzea eta ahal balitz gehitzea bertan txukunketak egiterakoan, iratze eta otea moztean, hostoak erortzean, etab, han bertan utziz ustel daitezen. Honela piskanaka HUMUS hori berreskuratu eta aberastuko dugu, mendian dena bait da aprobetxagarria.

Garai batean Elortegiko nagusiak biltzen zuen moztutako iratzea behin azpietarako. Gaur egun ongi legoke bertan usteltzea aipatutako arrazoiengatik.

ETA OZTOPOAK

Kontutan hartu behar da iharduera hau guztiz boluntarioa dela. Ez dago inolako dirulaguntzarik eta askotan laguntza tekniko eta lanen onartze aldetik hustasun haundiak ikusten ditugu.

Laguntza tekniko aldetik tresneri egoki baten falta ikusten dugu. Daukagunarekin moldatu behar dugu eta honek batzutan lana luzatu eta gogortzen du. Ongi legoke baita ere EPERTXOKOko lur eremua neurtu eta sare metaliko batez ixtea, eta honen arrazoia sinplea da. Ez dugu nahi leku hori pribatu izatea, denona bait da, baina berpoblaketa aurrera eramateko nahitanahiezkoa zaigu egindako lana baloratu, errespetatu eta babestea, egindako lanak garantia bat izango dutela jakitea. Esate baterako, nahiz eta inguru horietan ardiak sartzea debekatuta egon, behin baino gehiagotan ikusi izan ahal dira abere hauek berpoblatutako eremuetan sortutako zuhaitz gazteen kimu berriak jaten. Hau egindako lana pikutara bidaltzea da. Suteen arriskua ere hor dago. Makina bat aldiz izerdi ederrak bota ondoren egindako landaketak nola kixkaltzen diren ikustea negargarria da.

Bestalde herri mailan ere, bai frontoiaren atzeko hazitokian, bai Altamira, Pysbe edo eta herriko inguruetan landatutakoa zaintzen izugarritzko lana dago eta jendearen parte hartzea nahiko exkaxa da. Askotan nahi baino denbora gutxiago eskeintzen diogu EPERTXOKOri. Hala eta guztiz ere pena merezi du. Zuhaitzak edonon botatzen dira aitzeki bat edo besteagatik baina jarri ordea...

Jakin dezagun bada, zein garrantzitsuak diren gure eta naturaren biziaren iraupe-nerako.

KOKAPENA ETA ZENBAIT DATU

EPERTXOKO izeneko herri lurra Elortegi gainean kokatuta dagoen hektarea batetako lur eremua da. Hona hemen bere mugak eta mapa txiki bat:



EPERTXOKOko lur eremua beltzez agertzen zaiguna da. Azpimarratuta daudenak inguruan aurkitzen diren baserriak dira. Alde batetik Larraka baserriko lurrekin (3), bestetik Elortegikoekin (2), goiko aldean Manuel Olasagastiren lurrekin (1) eta Guadaluperuntz doan mendi pistarekin ditu mugak.


90-91 urtea: TXUKUNKETA

ARTE, ARITZ eta ARTELATZ en ezkurak erein.

91-92 urtea: URKI, ARITZ, GOROSTI, eta GURBITZ HAZITOKIA. Zuhaitzei estakak jarri.

Bibliografia: Integral eta QUERCUS aldizkariak

LEZOKO EKOLOJI TALDEA



GURE JAIZKIBEL, HISTORIA MAMITSUA

Jaizkibel Euskal Herriko mendi bat gehiago dugu eta mendi denez, bizidun. Berezko bilakaera bat izan du mendeetan zehar eta erabat loturik ageri zaigu Pasai Donibane, Hondarribia eta Lezoko herriarekin. Jaizkibelek banandu eta elkartu ditu herri hauetako biztanleak batzutan garoak direla eta bestetan erromeriak direla eta.


Lezoko herria, aipatutako beste biak bezala, oso loturik dago bere begi aurrean nagusitzen den izaki aldapatsu horri.

Lezoko ereserkiak ederto adierazten du Lezoren Jaizkibelekiko lotura:

*«Itsaso gainetik, Jaizkibel mendia, Jaizkibel mendia,
mendi giblean, Jaizkibel oinetan, Lezoko herria;
hemen biltzen dira euskaldun jendea, euskaldun jendea,
aintzinetik bait da guztiz ezaguna gurutze alduna,
ezker-eskubi, zelai baserri, ondorengo oinarri,
.....»*

(Tomas Garbizu)

Jaizkibel ez da gaur egun garai batetan izan zena, ez eta Tomas Garbizuk bere ereserkian aipatzen duena, ez halajaina! Bertoko zuhaitz mardulez estalitako mendi bat izatetik, basamortu itxurako azalera ilun, goibel bat izatera pasa da, eta bitarte honetan insignis pinuaren eraso ezagutu du berezko paisaia desagertuaz.



Lezoko biztanle zaharreneen ahotik entzun daitekeenez «lehen» Jaizkibelen punta batetik besteraino joan zitekeen lurrik ikutu gabe, zuhaitzez zuhaitz alegia. Bazen jardun honetan Lezoñ famatua egin zenik ere.

Garai zoragarri haien aztarna bakarrak Jaizkibelgo azalera osoan ote eta sasiakin nahasirik topatzen ditugun zuhaitz landare ttikiak dira. Garai batetako zuhaitz haien zuztarretatik sortuak.

Landaretzarena ez da Jaizkibel jasan duen aldaketa bakarra, horixe ezetz! kostaldearen kutsadura, baserrien desagerketa, errekatxo eta ur iturrien desagerketa eta kutsadura...

Jaizkibel garai batetan beste edozein mendiren antzekoa izan zen, osasuntsua, garbia, bere malkarretan ametsak, pagoak, lizarrak, arteak,...; bere magalean sagar-rondoak, gaztainondoak,...

XVII-XVIII-XIX. mendeetan olagintzan, burdingintza eta nekazaritzaren aurrerape-nekin Jaizkibelgo landaretzaren uztiakuntza garrantzitsu bat hasi zen, hau aurretik existitzen bazen ere ez zen hain garrantzitsua.

Lezo eta Pasaiaiko untziolatan egin ziren, Jaizkibelgo zuraz, Armada Invencible-ko untzi zenbait.

Nekazaritza eta abeltzantzaren aurrerapenak larre eta soro berriak behar zituen eta hauek lortzeko hainbat baso erre zen.

Burdingintzak ere eragin zuen burdinoletako labeak egur-ikatz bezalako berotzen bait ziren, ehun burdin kilogramo lortzeko bostehun egur-ikatz kilogramo behar ziren.

Baina uztiakuntza hau aurreko mendearen bukaera-alderarte nahiko zuhurki zaindua izan zen. Zaintza honen adierazgarri mendeetan zehar politiko erakunde ezberdinek hartutako erabaki eta legeak ditugu.

1397. urteko lege batek dioenez bost hegalondo edo fruitu zuhaitz baino gehiago eraisten zituenak heriotz zigorra jasoko zuen. Haritz, pago eta lizarrak iharturik baino ezin ziren moztu, inork hauetakoren batetako ale osasuntsuren bat moztuko balu ordainetan beste bi landatu beharko lituzke.

1548. urtean Gipuzkoako Junta Orokorrek hartutako erabaki baten bitartez udal bakoitzak urtero 500 zuhaitz landatu eta zaindu behar zituen. Kopuru hau lortzen ez zuen udalak isun gogor bat ordaindu behar zuen; gaintzen zuenak, aldiz, saria.

1738. urtean Junta Orokorren aginduz Gipuzkoan udal guztiek haritz kopuru jakin bat hazi behar zuten. Horretarako hazitegiak antolatu behar zituztelarik. Jaizkibelen untzigintzarako zura oso aproposa zuen izeia hazteko agindua eman zuten. Horretarako Auñamenditik haziak ekarri zirelarik. Baina ezagutzen ez den arrazoi bat dela medio izeia ez zen batere ugaritu eta gaur egun ale bakan batzuk baino ez ditugu topatzen.

1768. urtean komisario batek egindako bisitaren txostenean dioenez Lezoñ agindua hazkuntza eta landaketari dagokionez ondo betetzen da.

Honela Jaizkibel amaitzear dagoen mende honen hasieran mendi osasuntsu bat zela

esan dezakegu. Baina Industri Iraultzaren etorrerarekin zauri sakon bat egin zitzaion mendi honi, naturari orohar, gaur egun ioniz baino sakonago den zauri bat, etengabeko odolustutzea.

XX. MENDE ATARIAN JAIZKIBEL ERASOPEAN:

Mende berriarekin batera ia Gipuzkoan papergin industria indartuko da, Industri Iraultza dela esango dugu. Industria berri honen beharrei erantzuteko beste euskal mendi askotan bezala Jaizkibelen ere «insignis» eta itsas pinua landatzeari ekingo zaio. Bertoko basoak kendu, erre eta pinua sartu ordez.

Urteetan atzera eginaz mende honen haserako pinuaren landaketa masiboa hasia zela esan dezakegu honi buruzko datu zehatzik ez badago ere. Pinuaz lehen datu adierazgarrienak 1926. urtean izandako sute batekin datozkigu, garaiko txostenek diotenez 6000 pinu inguru erre omen ziren. Ondorengo erreproblazio lanek hala ere ez zuten bertoko zuhaitzentzat lekurik izan. Papergintzak, garai hartan indartsu, zer esan handia izan zuen mendia birpopulatzeko orduan.

Birpopulatzeko intentsiboena Guda Zibilaren ondorengo urteetan egin zen, baina 1956. urteko otsailan izandako izozteak gehienak ihartu zituen. Ondoren berriro ekin zitzaion pinua landatzeari baina Jaizkibelgo azaleraren zati handi bat gaur egun dagoen moduan geratu zen, ez bertoko ez kanpoko zuhaitzik, ote eta sasiek harturik, basamortu baten irudi bizia.

Gure mendi honen benetazko arazoak konponbidean jarriko dituen plangintza orokor bat beharrezkoa da, arrazoizko plangintza bat. Gizona naturan sortua, honi loturik dago eta zer esanik ez gure herria eta kultura. Hau altxorrik aberatsenatariko bat bezala gordetzera beharturik gaude herri eta gizaki bezala etorkizunik izan nahi badugu.

BETIXU
3.BBB-ko IKASLEA

BAZEN BEHIN BATEAN LEZO

Bazen behin batean herrixka ttiki bat, itsaso zabalaz babesten zuen Jaizkibel izeneko mendi magalean airoski itsatsirik zegoena, Lezo deiturikoa. Haundia ez zen arren, baserri bakarti anitz zegoen bertan. Batetik besterako distantzia areagotu egiten zuen isiltasunaren mintzo baketsuak. Eta basamortu giro horretan bizi ziren hango baserritarrak.

Herri kaxkoan etxe zuri gorri pilatxoak zegoen, udaletxea, ostatua, sagardotegi

bi, eta beste hainbeste eleiz, bat txikia enparantzan, eta muino batean bestea, haundia, erraldoia.

Herri horretan euskaraz hitzegiten zuten bertakoek. Beste hizkuntzarik ez zekiten, iganderoko mezatan buruz ikasitako latinezko zenbait otoitz ahozkatze-ko gai baziren ere.

Eguna argitzen zen ezkeroztik, eguzkia ortzian etzan arte egiten zuten lan soroan Lezoko emakume eta gizonak. Baso la-



netan aritzen zenik ere bazen, eta baita arrantzalaren bat edo beste ere.

Lanaren eta eleizaren dotrinek sustrai sendoak bota zituzten Lezotarren balore eta ohitura multzoan. Eskolarako joerarik ez zegoen kasik. Eskola oso urrun zegoen herriarengandik, eta ez herritik. Enparantzatik metro gutxi batzutara bazegoen ere, milioika kilometro zegoen herritarren eskolarako joera eta eskolako liburu, teoria, zenbaki eta bestelakoen artean.

Egunak, hilabeteak eta urteak aurrera zihoazen eran, lehen ere diruaren uretan igeri egiten iaioak ziren jauntxoek fabrikak eraiki zituzten. Eta ormigoi zurbilak tristetu egin zituen sagasti, zelai eta so-roak. Halere, patrika gehiago berotzen zuen ormigoi artean isuritako izerdiak, lurra landuz egindakoak baino. Eta honela, fabriketako makinak bilakatu ziren aldare, eta dirua Jainko. Txanpon hotsaren usainean ugaritu egin zen biztanlegoa. Kanpotik etorritakoentzat etxeak eraiki ziren nonnahi. Eta hazi egin zen Lezo, irentsi ezinezko erritmo beldurgarrian. Eskolatxo berri bat ere eraiki zen, ez oso haundia, lanerako sasoiak izan artean herriko gaztetxoak sartzeko modukoa. Eskolaren premia kanpoko haizeak ekarri zuen, eta berarekin batera hizkuntza, Buenos Aires non zegoen ez zitekeen euskaraz ikas. Idiei aginduak emateko baino askoz ere gehiagorako ez omen zuen balio hizkuntza zahar horrek, jakinerazi zen jakituriaren pulpitotik.

Hamaika gorabehera izan zen euskararen inguruan, behin kanpoko gailendu ondoren. «Eutsi behar zioagu» zioten batzuk, «Ez dik hainbeste balio», beste-zuk, «Somos de este pueblo, luego lo tenemos que aprender» zioenik ere bazen, «Que hablen en cristiano, qué hostias» ziotenak gehiengo ziren multzo haundian. Lezoko kimuak kanpoko hizkuntzan egin ziren trebeago etzekoan

baino, eta harrigarria bada ere, geroago euskararen defendatzaile sutsu bihurtuko ziren seme-alabak etorriko zitzaizkien. Eta inguruko ikastolatara eramane zituzten euren neskato eta mutikoak, herriko eskolan gero eta gauza arraragoak gertatzen bait ziren, eta ez han euskaraz ikasterik ez zegoelako soilik, jolaslekuan ere ezin zelako euskaraz hitzegingainera.

Bazter guztietan bezelaxe, herri hartan ere, nagusi ziren herritarren arteko liskar, haserre, gatazka eta ezin ikusiak. Batzuren egitasmoak besteren kritikagai ziren, eta lehia horien emaitza zen udal hautagaien promesa orritan beti lelo berberak agertzea. Ordurako zahar kiturik zeuden pilotalekuak eta eskolak ordezkorik ez izatea, eta hogeitabatgarren mendearen atarirako lortu zen futbol zelaiari «Bazen Garaia» izena ipintzea ere. Nola nahi ere, gabezia hazitakoen konformismoa arnas zitekeen Lezo hartan, gaur egun «zerbitzu publikoak» deitzen direnei zegokienean. Denborak normalizatutako itsukeri eta itsutasunak ezin zieten bestelakorik eskeini aiton-amonei, kirol zaleei, ezta galzorian zegoen euskara berreskuratu asmoz ikastera joatearen urratsa ematen zutenei ere, soka luzeago baten artean.

Eskola ttikitto utzi zuen denboraren iraganak, eta horma zahar haietan euskarak lekutxoak izan zuen, ez oso haundia baina... tira! Gurasoen ekimenak euskararen kabi bihurtu nahi zuen iadanik kutsu militarreko abestirik kantatzen ez zen eskola zaharra. Eta aire berria zabalduz joan zen bere baitan, eta honek ilusioz bete zuen ameslari zenbait, eta edifizio haundiagoa eskatu zen, eta...

Eta agintariek ez zuten gauzatzerik lortzen karpitetan ongi tolestaturiko proiektu pila hartatik, bat bederen. Bilkuraz bilkura eramaten zituzten halako eta halako arkitekto lotutako marra sorta.

Urte asko igaro zen, gehiegi behar bada, konpas eta ordenagailuz diseinatu-tako eskola berria eraikitzeko, herriko gobernarien akordio historikoari esker. «Hona hemen eskola berria», esan zuen inaugurazio ekitaldian Udaleko kultur arduradunak, jubilatua gehiengo ziren jendearen aurrean. Lezok, azkenean, eskuratu zuen garai berriei egokitzeko moduko ikastetxea. Haunditxoa, agian, gazteek eleizarako bidea utzi zuten bezala, haurrak eskolara bidaltzeko ohitura ere desagertu egin bait zen ordurako, Lezo izeneko herri hartan, hainbeste eta hainbeste ilusio zapuztearen ondorioz. Baina

eskola, eskola bikaina egin zen azkenean.

Hala eta guztiz ere, bazegoen Lezon idazle, musikari, pintore, bertsolari, maila goreneko irakasle eta besterik ere, euren lanaren bidez gailurra ezagutu zutenak, eskola madarikatu hura eraiki baino askoz ere lehenago. Gero, agintariak, herriaren izenean erakusten zituzten eskaparate eta erakuslekurik ikusgarrienen bertako baratzako ereintzak bailiren.

JOXE JUAN UGALDE ORDOKI


«JAIZKIBEL GAINEN ARGIA MISTERIOTSUA DELA ETA...»

Urte luzeetan Lezon bizi izan naiz baina segidan kontatuko dizuedana gertatu zitzaidanean Irun mugatarranean bizi nintzen, «erlauntzez» beteriko Azken Portu izeneko auzo dorretsu eta jendetsuan zehazkiago esateko. Behin, eta beste askotan bezala, Lezo alderantz abiatu nintzen nire seme zaharrenarekin, eta Jaizubia auzoan dagoen bidegurutzean geundenean, atera aurretik, eskubiko aldera begiratu nuen, Jaizkibel mendi aldera alegia, eta han, zeruan, ikusi ahal izan nuen pasadizo honi hasiera eman zion argi haundi dizdiratsua.

Zerutik zetorren eta goiko aldetik jeisten zen okerdura zorrotza eginez, bapa-

tean mugimendua aldatu zuen eta beste okerdura berri batez zeru alderantz igo zen berriro Jaizkibeleko gailurrean dauden antenen gainetik igaroz, berrehun edo hirurehun metrotik gora, nere irudipenez. Haundia zen, ikaragarri haundia, ilargi betearen neurrikoa gutxi gora behera, zuri-zuria, argitsua, dizdiratsua, oso, eta bazirudien argia atzeko alderantz zihoakiola, mugimendua zetorkion alderantz alegia. Borobila zen, baina luzaturik atzeko aldera, obaloide baten antzera.

Kotxea geldierazi nuen eta begira gelditu nintzen. Bapatean argia desagertu egin zen, itzali egingo balitz bezala. Segundu batzuk, besterik ez ziren izan, han, zerura begira geldirik eraman nituenak,



baina nahikoak ikusmen haren irudia nire buruan tinko grabatzeko. Begiratu nuen kotxean dagoen erlojuan, eta arratsaldeko 6ak eta 25 ziren, abenduaren 13ko arratsaldeko 6ak eta 25 hain zuzen, Santa Luzia egunekoak zehazkiago esateko.

Geroztik, maiz egon naiz pentsatzen argiaren desagerpenaz eta hiru balizko irtenbideetara iritsi naiz:

- a) Nonbait sartu zen, zeruan zegoen zulo ilun edota guretzako ikustezina den ate batean.
- b) Bere argia itzali zuen, gure begi bistarako ikustezina bihurtuz.
- d) Abiadura bortizki azkartu zuen, gure begi bistatik galduz.

Baina esan beharra daukat, hiru irtenbide hauetara iristeko daukadan arrazoi bakarra nire irudimen hutsa izan dela, ikusi nuen desagerpen bortitzetik, nire irudimenak edo agian nire senak aginduriko balizko irtenbideak. Egunak igaro ziren eta nik nire buruari galdera bera egiten nion behin eta berriro, zer ote zen nik Santa Luzia egunean ikusi nuena?

Holako gauzetaz aritzen diren edota ulertzen dutenekin hitzegin nahi nuen, nire ikustaldiaren berri emateko, baina nire seme jaioberriaren gaitza zela eta, ezin izan nuen, ez bait nuen astirik aurkitzen. Behin, bururatu zitzaidan eskutitz bat idaztea gertatu zitzaidana kontatuz, eta honela egin nuen, euskerazko idazkia «Argia» «Egin» eta «Egunkaria»-ra bidaliz eta erderazkoa berriz, «Diario Vasco» delakora. Urtarrilaren erdi aldean atera zidaten D.V.-n erderazko eskutitza, eta hil bereko bukaera aldean «Argian», aipaturiko beste bi komunikabideetan jai eman didate, eta egia esan ez dakit zergatik? agian seriotzat ez dutelako hartu edo...

Aipaturiko eskutitzean gertatutakoa kontatuz gain, nire telefonoa eskaintzen nuen nirekin hitzegin edota harremane-

tan jarri nahi zutenentzako. Eta eskutitza argira atera bezain pronto hasi ziren telefono deiak, eta etengabeki gainera. Hauei esker zenbait zehazkizun, hipotesi eta eritzi jaso izan ditut, orain segidan kontatuko ditudanak. Asko usteak beterik ez dira, eta ondotxo ezagutzen dugu euskal esaera zaharrak honetaz esaten diguna: «Usteak erdia ustel» famatu hori alegia, baina hala eta guztiz ere plazaratzeko ausardia etorri zaidanez, hona hemen bada, ikustaldi horretatik atera dudana.

A) SANTA LUZIAREN EGUNeko ARGIA

Aipatu dizkizuedan telefonozko harreman horietatik oso gauza interesgarriak atera daitezke, ikustaldi gehiago egon bait ziren aipaturiko egunean eta aipaturiko orduan, baina hori bai leku ezberdinetan. Orain arte Euskal Herrian izan zen lehenengo ikustaldia Gasteizko inguruetan eman zen, eta bertan irakasle talde batek ikusi ahal izan zuen zeruan zehar eta habaila haundiz mugitzen zen argi zuri dizdiratsua. Ikaragarri haundia zen eta Urolaldera zihoan.

Bigarren ikustaldia Azkoitin ematen da eta bertako Rosak ikusi zuen Txalintxo mendixka aldetik zetorren argi bera, bere gainetik zerua zeharkatuz, eta Donostia alderantz abiatuz. Erlojuari begiratu eta 6,20 edo 6,25 inguru ziren. Hirugarren ikustaldia Osintxu aldean izango da, Bergaratik Soralezera doan errepidetik hain zuzen. Automobiler zahoala, Joxe Olamusuk gauza bera ikusi ahal izan zuen harridura haundiz. Olamusuk digunez: «suzko bolie» zirudien, Azkoitia aldetik zetorren eta bere ustez, Donostia alderantz edo... zihoan.

Abiadura haundiz zihoan eta bapatean «tiro bat bezala egin zuen» Olamusuk dioenez, eta abiadura haundiagoa hartu zuen. Argiaren inguruan, ispilu batean



Lupe Etxaide, Karmen Ibargarai eta Migel Etxegarai lekukoak.

ikus daitezkeen zirkulu kontzentrikoen gisako zerbait zeramala iruditu zitzaion. 6,25 ziren.

Laugarren ikustaldia Bilbo-Behobia izeneko autobidean eman zen, Irundik Donostiara zihoan Joxe Martin Adebak ikusi bait zuen Donostia aldetik zetorren argia. Haundia, ilargi betearen neurrikoa, zuri-dizdiratsua, argitasuna atzeko aldetik galduz, borobila edo hobeto esanda, obaloidea, luzatua,... Hala zen Joxe Martinentzat ikusten ari zena, aurreko eta atzeko ikusle guztientzat izan zen bezala. Bapatean, «Pryca» hipermerkatuaren parean, oso goian zegoen odei batean sartu eta bere begi bistatik galdu egin zen. Tenore bera zen, 6,25 gutxi gora behera. Joxe Martinek dioenez, ertzeetatik lotutako bi zopa plateren itxurakoa zen, obaloide antzekoa.

Bostgarren ikustaldia niri dagokit, lehen kontatu dizuedan bezala kotxez nentorren Behobia aldetik eta Lezo alderantz nindoan, eta Jaizubiko bidegurutzean nengoenean ikusi ahal izan nuen zerutik jeisten zen argia (agian Joxe Martin Adebak ikusi zuen odei garai hartatik) eta beste okerdura eginez Jaizkibel mendia igaro zuen itsaso alderantz, bapatean eta inolako arrastorik utzi gabe desager-

tzeko. 6,25 ziren.

Hauetz gain badago seigarren ikustaldi bat, Jaizkibelen, Guadalupeko ermita aurrean zeuden Karmen Ibargarai, Migel Etxegarai eta Lupe Etxaideri dagokiena. Han zeudela, ikusi ahal izan zuten beren buruen gainetik pasatzen ari zen argi haundi eta dizdiratsua. Begira gelditu ziren harrিতuta itsaso aldera zihoala ikusirik, galdu zen arte, danok esaten duten bezala bapatean eta itzaliko balitz bezala, niri ere iruditu zitzaidan bezalaxe. Baina hasieran argia zuria bazen ere itsaso aldera jeisten hasi zen bezain pronto kolore guztietako argiak botatatzen hasi omen zen. Esan beharra daukat hemen bukatzen dela kontua nik abenduaren 13an ikusitako argiari dagokionez behintzat, baina denbora berean hemen ireki zitzaidala leihoa egun hauetan bai iazko abenduan eta bai aurtengo urtarril eta otsailean ere bailara zabal batean gertatzen ari diren ikustaldi bitxiez jabetzeko.

Mapa baten gainean jarrita, eta ikustaldiak eman ziren tokiak kontuan hartuz lerro zuzen bat egin genezake Gasteiztik abiatuko zena, eta Azkoititik eta Donostia aldetik, ez bertatik, pasatuz Irun aldeko Jaizkibel mendiraino iritsiko zena. Baina esan beharra dago Santa Luzia

eguna ez zela amaitu bestelako ezitxaroren bat ekarri gabe, aurretik aipatutako guztiarekin arras ezberdina suertatu zena gainera.

Gaueko 11,30ak ziren eta Jose Manuel Mata Donostiako Pasealeku Berritik zebilen bere zakurra paseatuz. Komun publiko zaharrak zeuden tokian gelditu zen han, kainabera eta guzti, zegoen arrantzale ezagun batekin hitzegitera. Eta solas bizian zeudela ikusi ahal izan zuten bildurrez eta harriturik, beren buruen gainean, hamar bat metroetara edo, matxiña bat (= objetua, Hondarribiko euskaraz) ipini zitzaie. Haisieran balizko helikoptero batetaz pentsatu bazuten ere, berehala konturatu ziren beste zer-bait zela. Ez zuen inolako zaratarik egiten eta geldi geldirik zegoen, bere ingurutik kea sortzen zitzaioarik, kea zerion, oso ke bitxi eta trinkoa, ingurua lanbroturik balego bezala edo, estaltzen zuena. Horrela egon ziren geldirik, ikaraturik, segundu batzuk, minutu batzuk agian,... ez bait dakite zehazten, eta bapatean matxiña luze argitsua Santa Klara ugarte alderantz, beraien ustez, abiatu zen. Gertakizun gogorra benetan!

B) AZKEN HILETAKO BESTE GERTAERAK

Baina Santa Luziaren egunekoak baztertera lajata, ikus ditzagun labur labur azken hilabete hauetan gertatu izan diren bestelako gertaera bitxiak. Abenduaren 12an, Santa Luzia egunaren bezperan hain zuzen, Edurne Izagirrek bere Lasarteko etxeko leihotik, gaueko 10,30ak 11ak bitartez, matxiña (objetu) bitxi bat ikusi zuen zeruan. Igeldo aldeko mendietatik barna zebilen, haundia eta dizdiratsua zen, neurria ematekotan ilargi betea baino lau aldiz haundiagoa zela esaten digu. Ez zihoan oso azkar, eta azkenean beste etxe bateko teilatuak eragotzi zion ikustaldiarekin jarraitzea.

Urtarrilaren 6an, ilunabar aldean Luis Ibañez donostiarra Anaka aldetik zetorren kotxez, eta Behobia alderantz doan errepidera ateratzerakoan, aurrez aurre, Hendaiako hondartza gainean, ilargia bezelako objetu dizdiratsu haundi bat ikusi zuen. Haisieran geldirik bazegoen ere, gero mugitu egin zen Jaizkibel mendirantz abiatuz eta hango pinudi baten atzean ezkutatu egin zen.

Urtarrilaren 11ean, gaueko 12etan, Igor Olazabal gaztetxo Irungo dantza-toki batetik irteten zen eta etxeko bidean barrena zihoala Jaizkibel alderantz begiratu zuen, eta ezuste haundiz, han ikusi ahal izan zuen argi haundi dizdiratsua Jaizkibel gainean. Ikaragarria zen, ilargi betearen neurrikoa, eta geldirik zegoen, ez zen mugitzen. Harriturik begira gelditu zen zer pentsatu zehazki jakin gabe. Ordubate laurden gutxitan etxeratu zen, eta etxean sartu bezain pronto, Jaizkibel aldera ematen duen balkoira atera zen, eta bere harridurarako argia han zegoen oraindik, lehenoko tokian, geldi geldirik.

D) BESTELAKO AGERPENAK

Baina nire eskutitzean telefonoa jarri nuenez, danetako deiak jaso ditut. Batzuk abenduaren 13ari dagokionak, beste batzuk abendu eta urtarrileko beste egunetan gertatutakoen berri eman didatenak, eta egon egon dira ere, bestelako ikustaldien berri eman didatenak, beste urteetan eta beste lekuetan gertatutakoak, eta fenomeno honekin nolabaiteko lotura eduki dezaketeenak. Hona hemen bada, garantzitsuen iruditu zaizkidanak.

Irigoien jaunak Irundik hots egin zidan eta kontatu zidanez ba omen dauka etxetxo bat Nafarroan, Lizarra aldean, non bere oporrak igarotzen dituen. Oporraldi hauetan oso gauza bitxiak gertatu zaizkio, bere etxetik Lizarra aldera doala edo alderantziz, handik etxe aldera datorrela,

argi haundi dizdiratsua ikusi ahal izan du hango zeruan ibiltari. Behin geldirik ikusi omen zuen eta berarekin batera, inguruetako jende askok. Hango nekazariak diotenez «satelite» edo antzeko zerbait izango zen.

1985. urtean, Gipuzkoako Zubietan, Esther Garma andreak bere etxeko terrazan zegoela, argi ikaragarri haundia ikusi zuen zerutik pasatzen. Haundi haundia zen, laupabost aldiz ilargiaren neurrikoa, dizdiratsua, atzetik kolore guztietako isatsa uzten zuelarik. Habaila haundiz zihoan arren, argi eta garbi ikusi ahal izan zuen zeruan. Berak dioenez, ordu ezkeroztik bere bizitza arront aldatu zaio, bestelako konformidadea bereganatu bait du.

Duela lau urte, oraindik ezkontzear zeuden Esteban Egimendia eta bere emaztegaia, andoaindarrak biak, Hernaniko mendietatik barna zebiltzaten. Ilunabarra zen eta kotxea aparkaturik utzita, ibilalditxo bati ekin zioten inguruetatik. Bapatean argi dizdiratsu bat hurbildu zitzaien, eta beraien aurrean gelditu zen 10 bat metroetara edo... Oso bitxia zen, ez zuen inolako formarik, baina bazirudien musua edo antzeko zerbait zuela, nolabaiteko expresioa izanen bazuen bezala.

Ez zeukan zangorik eta haizeak kulunkatutako puxika baten antzera mugitzen zen, jauzika, baina jauzi tikiak emanez. Esteban eta bere emaztegaiak bere barneko indarra aterako balitzaieke bezala sentitu zuten, eta denbora berean, aurrean zeukaten argiak bestelako indarra edo energia sartuko balie bezala. Konortea galtzeko moduan zeuden. Gero zer gertatu zen?... ez dakite oraindik, une horien oroimena galdu bait dute. Hortik aurrera bakarrik gogoratzen dute zuhaitz artean zeudela biak, eta argi misteriotsua dagoeneko desagerturik zegoela. Beraiak digutenez oso bizikera gogorra!

1.990eko martxoko hasiera aldean, Gaintxurizketa aihekan, Jexux Mari Lopetegi baserriar gazteari oso gauza bitxia gertatu zitzaion. Dena den garaiko Egin-eko lezoar kronikak, berarekin edukitako elkarrizketari jarraituz, honela kontatzen zuen:

«Altamira aldean, Mihura baserriko semea den Jexux Mari Lopetegi, bazihoan gaueko 5,45etan bere baserri aldera. Bapatean, atzeko aldetik argi baten ditzira somatu zuen. Ilargia zelakoan aurrera jarraitu zuen, baina halako batean, argia bere gainean somatu zuen, eta berarekin batera, bere gorputza mugitzeko ezina. Neurtu ezin zezakeen denboratxo baten ondoren, objektu argitsua- ren eragina moteltzen joan zen eta Jexux Mari bere baitara itzulita, korrika abiatu zen anaiaren baserriko ateraino, argiak atzetik bere pausuak jarraitzen zituen bitartean».

Berak objektua gogoratzen duenean, borobil antzeko zerbaitez hitzegiten du, alde guztietatik argi indartsu batez inguraturik zegoena. Berak esaten duenez, putzu batean harri koxkor bat botatzerakoan agertzen diren zirkulu kontzentrikoen antzerakoak omen zituen bere inguruan. Oroitgarri gisa, erlojua bateriarik gabe gelditu zitzaion aipaturiko ordua gogoraraziz, goizaldeko 5,45ak. Zenbait ikerlariren ustez, Jexux Mariri egin ziotena, garun irakurketa xume bat izan zen, oroimen eta bizitakoaren irakurketa alegia.

Iazko abuztuan bestaldez, J.A. Serrano irundar gazteak eta bere amak, gaur zehaztu ezin dezaketen egun sargoriotsu batetan, gaueko 11,30ak-12ak bitartez, sekulako ikustaldia eduki zuten. Ama etxeko balkoian ari zen bertan zintzilik zuen arropa jasotzen, eta bapatean objektu haundi eta argitsu bat ikusi ahal izan zuen zeruan, bere aurreko aldean gutxi gora behera. Harriturik, semeari deitu

zion ikusten ari zena ikus zezan, eta azken hau hobeto ikusi nahian, prismatikoak hartu eta kalera jeitsi zen. Une zehatz hartan matxiña argitsua gainean ipini zitzaion geldi geldirik, eta zenbait minutu horrela egon ondoren abiatu zen ziztu bizian Aiako Harri alderantz. J.A. Serranok dioenez, berak lurretik begiratuta, triangulu antzeko irudia ikusten zuen, koloreetako argiak alternatzen zituen mezuren bat eman nahiko balu bezala bere argien bitartez. Bere gainean egon zen bitartean, etengabeko doinu monotono aspergarria egiten zuen.


Eta bukatzeko atal honekin, aipa dezagun Jaizkibeleko Olearso izeneko gailurrean dagoen Guadalupeko Ama Birjinaren baselizako serora den Lupe Etxaidek kontatu ziguna. Behin, duela bostpasei urte, ilunabar batean, handikan zebilen maiteminduen bikote bat atean joka hasi zen laguntza eskatuz. Esan zutenenez, argi bitxi bat beuden atzetik omen zebilen, eta ikaraturik elizan babestu ziren.

Txol bildurturik zeudenez, han pasatu zuten gau osoa.

E) AURRETIK GERTATUTAKOAK

Badirudi kontu hau ez dela oraingoa, 50.eko hamarkadan ere, oso gauza bitxiak gertatu bait ziren Jaizkibelen inguruan. Ikus dezagun garaiko prentsak nola kontatzen digun. Adibidez, Cifra Agentziak honela kontatu zuen 1.950ko martxoaren 21ean Gaintxurizketa aldean gertatutakoa.

«Donostia eta Irun artean dagoen Gaintxurizketako gainetik, bi gazte pasatzen ari ziren bizikletaz 1.950ko martxoaren 21eko ilunabarrean. Bapatean sekulako ikustaldia izan zuten. Gaueko 12,30ak inguru ziren, eta halako batean bi argi dizdiratsu azaldu ziren zeruan, pittinka pittinka haundiagotzen joan zirenak. Bazirudien Jaizkibel gainean erori behar zutela, baina azken momentuan



Israel Gomez Kyrios elkartekoa.

eta okerdura zorrotz batez, igo ziren berriro mendi gainetik igaroz. Aipaturiko bi objektuek diztira metalikoa zeukaten eta oso abiadura bortitzez mugitzen ziren».

Beste lekuko batek honela kontatu zuen: «1.954ko abenduaren 6an, J.M.P. bizikletaz zihoan Gaintxurizketatik barrera Irun alderantz. Bapatean bere aurrean argi haundi bat agertu zen, momentuz momentu haundiagotzen zena. Gero eta gehiago hurbiltzen zitzaion, eta jeisten zen neurrian argitasuna galtzen zuen. Lurrera iristerakoan itzali egin zen. Objektua iluna zen oso, 4x3x6 neurrietako paralepipedo errektangular baten antzekoa. Korrika alde egin arren, J.M.P. itzuli omen zen beranduago objektua egon zen tokira, eta ikusi ahal izan zuen errektangulu haundi baten tankera hartzen zuen belar zanpatua, eta baita zenbait metale puska ere».

1.955ko urtarrilaren 5ean beste antzeko objektu bitxi bat ikusi ahal izan zen Gaintxurizketako bailaran. Honako honetan lekuko ugari egon ziren: Felix Gallarraga eta Gerardo Irazusta —biak ehiztariak— eta Arrastio anaiak. Azken anaia hauen esanaz, borobil eta arras dizdiratsua zen, eta diametrozko hiru bat metrotakoa. Jeitsi egin zen, baina egia esan, sekula ez zuten jakin lurra hartu ote zuen edo lurretik hurbil gelditu zen. Berehala igo egin zen habaila bortitz batez, Pasai Donibane alderantz, hots Ipar-Ekialderantz abiatuz.

Azkeneko kasu hau haizatua izan zenez gero, Donostia Irratiak irratsaio bat kaleratu zuen Gaintxurizketan gertatzen ari ziren fenomeno bitxiez ohartzeko. Telefono dei asko egon ziren, eta hauek baten, Gaintxurizketako harrobian lanean aritutako langile batek, antzeko zerbait kontatu zuen:

«Ilunabar batean, han harrobian oraindik lanean ari ginela, ikusi genuen guregana hegaka zetorren oso objektu bitxi

dizdiratsua. Harrobiko ertzeraino jeitsi zen eta hor zenbait minutu egin ondoren, igo egin zen berriro zero aldera, goi aldean zeuden odei artean galdu zen arte. Zuria zen eta arras dizdiratsua».

F) ADIERAZPEN BATEN BILA

Ikus dezakezue, nik haritik tiratzea izan da egin dudana bakarra, eta nahi gabe mataza osoa astindu dugu. Santa Luzia egunean ikusi nuen argi dizdiratsu harekin hasi zena, hamaika gertaera eta ikustaldiren berri izateko aitzakia bilakatu bait zait. Eta arront harriturik, nik hastapentetan, eskutitza idazteari ekin nionean, pentsatzen nuena baino askoz mundu misterioitsuago eta korapilotsuagoan murgildu naiz bete betean. Orduz geroztik makina bat dei eta solas eduki ditut, eta datuekin batera, berauen balizko adierazpenak ere iritsi zaizkit. Beltzak eta gorriak, gordinak eta konjelatuak, zeharo ezberdinak diren era guztietako irudipenak nireganatu ditut.

Guztiz bitxia, baina lehen esan dudana bezala, Santa Luzia eguneko argi dizdiratsua ikustaldiak Euskal Herriko mapa baten gainean jarri ezkerre, ikus dezakegu Gasteiztik Jaizkibelerraino zuzenean doakigun lerroa osatzen zaigula. Izena ematekotan neronek «Santutegien Lerroa» emanen nioke, Gasteizko Ama Zuriarenetik hasita eta Loiolakoaren gainetik igaroz, Jaizkibeleko Guadalupeko Ama Birjinarenean amaitzen bait zaigu. Kasualitatea ote?, auskalo! Baina kasualitateak bazterrean utzirik, ekin diezaiegun fenomeno honen balizko adierazpenei. Zenbait ikertzaile eta adituekin luze mintzatu ondoren, bi adierazpen moeta ezberdin ematen dituztela ikusi dut. Eta batzuek adierazpen izpiritualista ematen dioten bitartean, besteek beren indar eta argudio oroz, adierazpen ufoloikoa defendatzen dute. Lehenengoaren defendatzaileek sinisten dutenez, ga-

rrantzizkoena ez omen dira agerpenak, non ematen diren baizik. Beraien ustez beti edo gehienetan leku santu edo sakratuetan ematen bait dira: santutegietan, leku mitologikoetan, aintzineko hilerrietan, etab... Eta ondorioz lekuari leporatzen diote fenomeno hauen zergaitia, nolabait esateko. Argia ez da kasuala, seinalea baizik. Argia ez da kasualki ikusten, bera ikustarazten da baizik. Teoria honen defendatzaileen ustez, badago izen anitzetako jainko bakar eta unibertsalaren borondatearekin loturik dagoen harreman zuzen zuzena.

Adierazpen ufologikoaz sinisten dutenek berriz, ez dute jainkoarekiko balizko lotura horretaz sinisten, eta beste izarbela edo planetako izakiez mintzatzen dira. Azkeneko hauen ustez, Jaizkibel aurrean, itsaso aldean, Higerreko lurmutur eta Hendaiaiko hondartzaren artean, han, itsas bazter hartan, ba omen dago oso denbora zaharretatik itsas azpiko egoitza bat. Eta O.H.E.-ak bertara sartzen dira, zeruko geruza behekoenetan dauden zulo ikustezin edo ate laudimen-

tsionaletatik. Eta irteteko gauza bera, aipaturiko zulo ikustezinetatik irtengo bait ziren. Bigarren hipotesi honen defendatzaileek diotenez, zulo hauek nolabaiteko bidetxigorrak izango lirateke, denbora eta distantziak izugarri murriztuko lituzkeenak.

Bata edo bestea, berdin dio niretzat, gauza da azken hil hauetan oso fenomeno bitxi eta ugarien aurrean aurkitzen garela, eta nolabaiteko segimendua egin beharko zaiela. Hau dela eta atrebentzia haundiegia ez bada, luzatu nahi dizuet Gipuzkoa mailan, holako fenomeno bitxiak aztertzen dituen «Kyrios» izeneko elkarte espezializatu eta altruistaren telefonoa (46 64 34 / 21 71 01 —Israelengandik galdezka), zeuek ere zeredozer kontatzeko baldin baduzue, anima zaitzteen zuen esperientziaren berri ematen. Ea denon artean gai honi buruzko informazio zirrikitoa zabaltzen dugun.

**JOSEBA AURKENERENA
BARANDIARAN**

DIETA BELARJALEAK

I datzi labur honen bitartez amaigabeko eztabaidak sortzen dituzten dieta belarjaleen inguruan bi hitz esan nahi nituzke.


Bi dieta mota nagusi daude, barazkiak baino onartzen ez dituenen, gainerako jaki guztiak baztertuz (Dieta bejetarianoa), eta barazkiez gain haragia baztertu arren arraultze eta esnekiak onartzen dituztenak (Dieta bejetarianoa).

Dieta bejetarianoa beste dietekin konparatuz eskeintzen duen energiaren aldetik oso urria da. Orohar dieta hauek ur kantitate handia daramate gure gorputzari, baina sortzen zaigun galdera hau da: Dieta hauek onak al dira?

Dieta hauek osa onak dira gure osasunarentzat baldin eta honen bitartez gu-

re beharrak asetzen baditugu. Hau da, esneki eta arraultzen laguntzaz —animali gantzak dituztenak— B eta D bitaminak eskuratuko ditugu eta oliba nahiz beste edozein hazitik ateratako olioak E bitamina erruz eskeiniko digu. Hau ikusita ezin esan dieta egoki batek bitamina hauek alde batera utzi ahal izango dituenik.

Hau esan arren, ez da egia dieta bejetarianoa batek lehentxeago aipatu ditugun bitaminak B,D,E guztiz ukatzen dizkigunik, ez horixe, barazkien bitartez bitamina hauek lor ditzakegu baina modu zailago batean. Hala nola, D bitamina karotenotik lortzen dugu eta sustantzia hau azenariotan dago baina ez da D bitamina bihurtuko hau jan ondoren eguzkia hartzen ez badugu. B bitamina bera



ere lortzeko arazoak izan ditugu, B1z batez ere, hau kokoa eta arroz nahiz ogi integralean topatzen bait da beziki. Bitamina hau behar adina hartzen ez badugu liseriketa (digestio) arazoak izango ditugu.


Baina aipatu bitaminez gain burdin minerala bera ere nahiko urria da dieta hauetan —oso ugaria gibel, haragi gorri, hegaluze eta arraultzaren gorringoan— baldin eta sagarra eta kiwi ura behar adina hartzen ez baditugu.


Ez da egokia, hala ere, dilistek (lentejak) behar dugun adina burdin emango digutenik aski izatea. Dilistek burdin asko dute baina ferrika eran eta honek gaitzagoa egiten du ondoren heste meheak metabolizatzea.

Dieta hauek behar bezala ez jarraitzeak arrisku nabariak ditu aipatu ditugunez gain proteina gutxi hartuz gero artrosia eta bestelako gaitzak errazago sortzen bait dira —proteina ugari eskeintzen digute soja legamina, esnekiak, fruitu lehorrak, lekaziak, zerealak, barazkiak...—

Gainera barazkiek aminoazidoek haragiak baino askoz ere balore biologiko baxuagoa dute.

Hortaz, esan daiteke dieta guztiz bejetarianoekin bestelako jakirik hartu gabe eta ondo kontrolatu gabe denboraren poderioz arriskutsuak bihur daitezkeela memoria eta majinazioan kalteak eraginez. Dieta bejetarianoak —bestelako jakiak onartzen dituztenak— esneki eta arraultzez behar bezala osatuta osasunarentzat oso mesedegarriak dira, batik bat azido uriko behar den neurrian gordetzeko. Haragi jale amorratuei honelako dietak jarri ohi zaizkie urtean 2 edo 3 astetan.





PROSA PROSA PROSA PROSA PROSA PROSA

«XARIT ETA LAINO» (1)

«**A**skatasuna lortzeko gure arbasoek borrokatu egin zuten, hil egin zuten,... Askatasuna lortzeko gure arbasoek utzi egin zituzten beren emazteak, beren seme-alabak, beren etxeak, beren ondasunak,... eta abiatu ziren gatazka zelaietara, luebaketara, herioaren basamortuetara.

Eta gaur egun, gu beren ondorengook, prest gaude borrokatzeko, hiltzeko, dana uztzeko,... gure askatasuna arrixkuan jartzen den bakoitzean».

1.- BI HITZ HASI AURRETIK

Asko gara amets eta asmoen indarrak sinisten dugunok eta asko izan dira, dira eta izango diren hauen atzetik, dana utzirik, dana galdurik baita bizitza bera askotan ere, abiatu direnak.

Herri guztietan, garai guztietan aurki ditzakegu baieztapen hau frogatzen diguten pertsonaiak. Amets kodiziatutakoena, jarraitutakoena, itxarotakoena eta baita amestutakoena ere askatasuna izan dugu beti. Hitz ederra beraz, eta esanahi ederrago baten ontzi eta babesleku. Urteetan zehar askatasuna izan da herri eta gizon-emakume askoren bandera, helburua, itxaropena,... bizitzeko eta borrokatzeko aitzakia. Eta aitzakia zelarik piztu izan dira nonahi gerraren suak, herioaren txinpartak.

Askatasuna lortzeko gure arbasoek borrokatu egin zuten, hil egin zuten,... Askatasuna lortzeko gure arbasoek utzi egin zituzten beren emazteak, beren seme-alabak, beren etxeak, beren ondasunak,... eta abiatu ziren gatazka zelaietara, luebaketara, herioaren basamortuetara.

Eta gaur egun, gu beren ondorengoak, prest gaude borrokatzeko, hiltzeko, dana uztzeko,... gure askatasuna arriskuan jartzen den bakoitzean. Elaberritxo honen bidez hauxe azaldu nahi izan dut Xarit mutil kartagotarra eta Laino neska euskaldunaren bitartez; Eta hortarako oinarritu ditut bi lagun hauen izaerak, biziak,... Kristo aurreko II. mendean, eta kartagotar eta erromatarren artean egondako punika izeneko bigarren gudatean kokatu.

Erroma ipini dut zanpaketaren seinale, Kartago aske izatearen bandera, eta bion ondoan, gure Euskal Herri zahar maitea, gure askatasunaren aldeko etengabeko borrokaldia agertu nahiean. Zein gure herria baino zaharrago askatasunaren aldeko borrokan?, nork kenduko dizkigu oraindik lortu ez dugun askatasunaren alde borrokatzeko grina eta kemena? Inork ez eta xiur aski, heriotza berak ere ez!

Azkenez, elaberriaren azken orrietan, Xaritek Lainok hil aurretik emandako lauburuak begiratu, Kartagoren bukaera igertzen digunean, bizitzaren etengabeko kurpil ibiltaria azaltzen digu. Alde batera edo bestera, gure lauburuak egiten duen bezalaxe, edo eskubitara edo ezkerretara, edo zori txarreko aldera edo onekora, baina beti itzulika. Eta une zehatz batetan itzuli baten bukaera beste itzuli baten hasiera bihurtuko zaigula konturatu ahal izanen gara. Eta honela, Navarro Villosladak bere Amaia bitartez ederki esan zigun bezala, amaiera izango da hasiera.

Gertakizun txar eta beltz batzuk dakarkiguten amaiera beste gertakizun alai eta zorionsuen hasiera bilaka bait daiteke, eta agian askatasunaren Hiltzeak askatasunaren berpizte baten sortze berria ekar dezaikiguke. Auskalo! Dan-dana dago itzulika, txilipurdika,... eta baita gu gizakiok ere. Orain hiltzen garenok, orain Ilargirantz daraman Ortzadarreko bidea hartzen dugunok, agian biharko egunean eta euriaren bitartez itzuliren gara berriro gure Amalurren kolkora beste izaki bizidun batez bihurturik. Eta bizidun esatean, ezin dezakegu ahaztu bizitzea eta izatea ez daudela oso urruti, izaten diren guztiak hola edo hala bizi bait dira ere.

Laino hilik suertatzen zaigu elaberriaren korapiloan, baita beste zenbait pertsonai ere: Anteron, Harriet, Anibal bera ere; Hilik eta beraien idealak beraiekin batera arrunt galdurik. Baina askatasunaren aldeko grina eta borrokak dirauten bezala, beren gogoak, beren izateak, nahiz eta izate ezberdin batez izan, iraun dezakete; Eta atzo Anibal zena gaur betizu ederra izan daiteke, eta atzo Laino zena gaur xirimiri mehe, goxo, hezea, Auskalo!

Danak aurrera darrai, biziak, ludiak, izadiak... denon ametsek, eta baita askatasuna lortzeko grina eta borrokak ere; Zeren danok osotasunaren bukagabeko kurpil ibiltarian murgildurik bait gaude, eta zeren danok bait gara etengabeki jarioan sortzen den iturri horren ur mugikorraren ttantta ttikia.

2.- NAUFRAGIOA

—Astiron, Astiron, lagundu nazazu, ezin dut gehiago!

—Berehala Xarit, ez kezkatu! Salbo gara! Bual haundiak aditu du gure bihotzen deia eta salbo gaude!

Honela mintzatzen zen gizona gaztea zen oraindik, berrogeiren bat ingurukoa, haritza bezain sendo eta liraina, ederra, goiera ertainekoa, ile orizkoa... eta bere begi urdinetatik zerion begiradak nortasun indartsu eta jatorrezko pertsona azaltzen zuen.

Bestea, Xarit izenekoa, gazteagoa zen, larru beltzarenegokoa, ile beltz beltza garaiagoa; indartsu eta sendo ere, baina gazteagoa izanik, ez zuen bere lagunaren sendotasunarik hartzen. Nahiz eta hondar orixkaren gainean konorterik gabe egon etzan-etzanda, bere aurpegian hogeitabost bat urteren gazte jator eta lirain baten izakera irakur zitekeen.

Astironek arrastaka, bere laguna atera zuen, itsas haserrearen ur apartsuek ikuitu ezin zezaketeen lekuraino, eta gero bat ere denborarik galdu gabe, olatuek itsasertzera zekarzkiten kaxa, manta, zapi eta bestelako hondakinen hartzeari ekin zion.

Egia esan, gauza haundirik ez zen, baino bai bertako hondarrokoskeini zezaizkietena

baino gehiago, eta hau jakinik, Astironek beren txaluparen azken hondakin eta hornizioak ur hotzetatik ateratzen saiatu zen denbora luzez.

Argia behera zihoan, eta zaparrada gogor eta aize danbaden artean apenax ezin zitekeen deus ikusi.



1.- Astironek arrastaka, bere laguna atera zuen itsas haserrearen ur apartsuek ikutu ezin zezaketeen lekuraino.

3.- LEIZEZULOAN

—Aupa Astiron!, non gaude? Salbo al gara? A bai, gogoratzen naiz, Baal haundiak lagundu gintuen eta berari esker, gure txalupak jo zituen harkaitz beltz eta zorrotz haietatik bizirik irten eta urrutian zegoen hondartzaraino igerika iritsi ahal izan genuen.

Baina non gaude orain? Hau zer da, leizezuloren bat? Gure itsasontziko besteren bat salbatu al da?


—Xarit laguna, ez mugi gehiegi, nekaturik zaude eta sasoian behar zaitut hemendik irteteko. Bai, hondartza inguruko leizezulo batetan gaude eta berotzen gaituen su honen egurrak gure txaluparen hondakinetatik sortuak ditugu. Jateko ez dut gauza

haundirik lortu, kaio arraultz hauek ezik, eta gurekin itsasontzian zihoazten beste guztiei dagokienez, ez du ematen beste inor salbatu denik eta ez da beste txalupen inolako arraztorik inondik ikusten. Xiur asko Itsasok irentsiko zituen betirako. Kartagoko izarrek lagun diezaieten azken bidea aurkitzen!

—Gure bidaiak porrot egin du, Kasiteride Ugarteak urrun daude oraindik, oso..., eta ezin izango ditugu hango metalak Kartagora eraman. Anibalek, gure buruzagi adoretsuak, honen berri izan beharko du erromatarrei berriro aurre egin aurretik. Gure marinel zaharrek ondo aholkatu ziguten bide honi ez jarraitzeko agindu zigutenean, baina gure herriak metala behar zuen gudateari ekiteko eta azkenean, hemen leku arrotz honetan, leizazulo honen iluntasun hotzean!

—Bai Kantauri Itsasoa ez da Mediterraneo bezain barea, eta bertako jainkoek indar izugarri kolpatzen dituzte beren bideetatik zehar hausartzen diren ontzi exkasak. Kasiteride Ugarteak urruti daude, urrutiegi gure ontzientzako, eta erromatarren aurkako beste gudate baten ateetan gaudenez, urrutiago oraindik. Xarit, Anibalen itxaropenak zuk antolatutako ibilaldian jarrita zeuden, eta orain...!

—Eta orain... zulo hondatik irten eta Kartagonobara abiatu Anibalengana! Ugarte madarikatu horietako metalekin edo metalik gabe, gudateari hasiera eman behar zaio erromatarrek indartsuegi bilakatu aurretik. Eta xiur egon, Astiron, zeruetako izarrek Kartagoren garaipen bideak argituko dituztela!



2.- Bai, hondartza inguruko leizezulo batetan gaude eta berotzen gaituen su honen egurrak gure txaluparen hondakinetatik sortuak ditugu.

4.- «EUSKALDUNEN HERRIXKAN»

—Beitu Xarit, han urrutian muino haren gerizpean dagoen herrixka! Ez da oso haundia, baina behinepein jakin ahal izango dugu non gauden eta zaldiak lortuko ditugu gure aberrirantz abiatzeko.


—Hamar bat txabola dira, besterik ez, baina behintzat zerbait beroa jan ahal izanen dugu. Ia egun osoa daramagu bidean eta gaurkoarekin badira hiru egun tripazorriak kanta kantari ditugula; hondartzako zulo hura utzi ezkeroztik horren zuzen.

—Baina kontu haundiz ibili beharko dugu hemengo biztanleekin, ez bait dakigu zeintzu eta nolakoak izan daitezkeen. Agian ez dute kartagotarrez gauza onik aditu eta...!

—(Bapatean) —Geldi hor arrotzak, edo nere gizonen geziek zuen gorputzak zeharkatuko dituzte! —oihukatu zuen emakumezko ahots batek latin txarrean eta inguru-giroaren lasaitasuna hautsiz—.

Geldi hor biak! —errepikatu zuen beren aldameneko harkaitz baten gainetik, arkume larruz jantzitako neska gazte eta polit batek—. Bere agindupean zeuden sei edo zazpi gerlariak bi kartagotarrak sokaz lotzen zituzten bitartean.

Oso azkarra izan zen dana, tximista baino azkarrago, eta egoeraz jabetu baino lehen, Xarit eta Astiron andre eder eta ezezagun horren hatzaparretan preso aurkitu ziren. Amen batean bi zalditatik lotu egin zituzten eta gisa honetan, emeki emeki zaldien urratsei jarraituz, lehen ikusitako herrirantz eraman zituzten.



3.- Amen batean bi zalditatik lotu egin zituzten eta gisa honetan, emeki emeki zaldien urratsei jarraituz, lehen ikusitako herrirantz eraman zituzten.

5.- «LAINO»

Txabolak egur, belar eta lohi egosiaz egina zeuden eta kanpo aldetik andreek jositako kolorezko ehunetaz estalita zeuden. Danak antzekoak ziren, baina herrixkaren erdi erdian bazegoen besteak baino askoz haundiago eta ederragoa zen txabola. Ehun orlegi batez estalita zegoen eta bertan zituen zenbait borobil zuritan, gorri kolorezko lau burutako gurutzen borobiltzuak ikus zitekeen. Bere aurrean su ederra zegoen eta bere inguruan lurtean eserita sei zazpi bat gizon-emakume beuren hizkuntz bitxiaz mintzatzen.

Halako batean eta neskaren agindu bati jarraituz, txabola aurrean gelditu erazi ziguten; gerlariak sokak kendu zizkiguten eta horrela aske, libre, ... txabolaren ate urreraino eramane gintuzten. Barrundik hiru gizon irten ziren, zer edo zer esan ziguten beraien mintzairaz, baina guk ez genien ezer ulertu. Neska konturatu zen eta guregana hurbilduz esan zigun latin kaxkarrean:

—Ongi etorri mutilak, basoetako euskaldunen artean zaudete, ez diozue inori bildurrik eduki behar! Ni Laino naiz eta herrixka honen buruzagia den Harriet, nere aitak agur beroenak eskeini nahi dizkizue bere bihotz errainetatik. Baina zeintzu zarete eta zertara etorri zarete euskal lurralde hauetara?

—Eskerrik asko!, —erantzun zion Xaritek— horren atsegin egiten zitzaien neska begibistatik galdu gabe. Kartagotik Kasiteride Ugarteetara metalaren bila gindoazen baina itsasok gure ontzia harkaitzetara eramane zuen eta miralukuski salbatu gara gu biok bakar bakarrik. Ez genekien non ginen eta herenegun martxan jarri ginen gure aberrirako bidearen bila. Gertatutako beste guztia ez dut uste oso ezezaguna egingo zaizuenik!

—Hau adituta, neska ezitxaroren gorritasunaz jantzi zen—.

—Ondo esan duzu arrotza, eta ulertu egiten dugu zure haserrea, baina jakin ezazu euskaldunek zeharo paketsuak garela, baina nahiz eta kanpotarrekin harrera onekoak izan, dela bost bat urtetik honera kontu haundiz ibili behar izan dugu gure herriak erre, gure neskatxak bortxa eta gure gizonak akatu egiten dituzten urrezko kolorez jantzitako eta erromatar izeneko gerlarien arma arrotz eta ankerren azpian ez erortzeko. Neu ere preso hartu ninduten Kalagorria suntsitu zutenean, baina zorte kolpe batez baliatuz handik bi urtetara ihesari ekin ahal izan nion. Bi urte luze eta trixte haietan beren mintzaira ikasteko beta eduki nuen eta orain berari esker zuekin hitzegiten ahal dut. Baina orduan zuek ez zarete erromatarrak ezta?


—Ez laino, gu kartagotarrak gara eta urrutiko ugarte horietara gure etsai amorratuak diren erromatarren aurka borrokatzeko behar genuen metalaren bila gindoazen. Gerra hurbil daukagu, erromatarrak gure askatasuna suntsitu nahiean dabilta eta gure buruzagi bulartsua den Anibal aurre egiteko prestatzen ari da. Guda horretan dan dana jokatu dugu, edo askatasunezko garaipena edo betiko morrionta.

—Jakin ezazu mutila Anibalen izanea ez zaigula ezezaguna egiten, erromatarren aurkako zenbait gatazketan bere laguntza izan bait dugu; eta horregatik bere izenak oso ospe handia du gure leinu guztietan. Orain dela egun batzu zuen buruzagiren gutunlari bat etorri zitzaigun laguntzaren eske, Anibalek Erroma zigortu nahi bait du, eta une hauetan leinu guztietako ordezkariak Iruñean daude bilduta eskakizuna aztertuz. Oraingo ez dago ezer erabakirik, baina nere uste apalez euskaldunen baietza

borobil borobila izanen da, eta gure gerlari trebeenak berarekin bidaliko ditugu. Geu gertu gaude, eta bihar bertan bagoaz nere aita eta biok Iruiñea aldera azkeneko berrien bila.

—Ez bazaizue axola nere laguna eta bioi izugarri gustatuko litzaiguke zuekin joatea!

—Baita guri ere holako gizon prestu eta adoretsuekin joatea!



4.- Ni Laino naiz eta herrixka honen buruzagia den Harriet, nere aitak agur beroenak eskaini nahi dizkizue bere bihotz errainetatik.

6.- «AGUR ASTIRON, EGUN HAUNDIA ARTE!»

Hurrengo egunean, goiz goizetik, euskaldunen herrixkatik irten izan ginen Iruiñeko bidean jarrita. Jende askorik ez ginen, gero eta ederrago zegoen Laino, Harriet bere aita, gu biok eta hogeitabost bat gerlari gazte eta gertu. Gure zaldiak azkar azkarrak ziren, zenbaitetan haizea baino azkarragoak, eta honelaxe habaila bizian euskaldunen hiriburuaren bidea erdi egina genuen.


Euskaldunen herria, beraien hitzez: Euskal Herria, zoragarria zen, bere landaretza arront ugaria eta bere basoak zabalak eta mugagabeak. Huraxe herri xarmangarria! Bere biztanleak, euskaldunak, oso gorputz sendo eta ederrakoak ziren, ederrak, eta izeraren aldetik guztiz argiak eta alaiak. Zaldiz gindoazela, aurre aurrean zihoan batak bapateko bertsoa bota zuen, eta beste guztiek bertso banaz erantzuna eman zioten.

Guk ez genuen tutik ere ulertu, baina euskararen doinuak gero eta zoragarriago jotzen zuen gure belarrietan. Euskarak, euskaldunen hizkuntzak, bazuen xarma majiko eta liluragarria batez ere Lainoren ezpainetatik lau haizetara jaiotzen zenean.

Beraiek esan zigutenez, barduliarrek ziren, eta zegoeneko aspaldi sartuta ginen baskoien lurraldeetan. Bapatean erreka zabal bat agertu zitzaigun aurrean eta alde batetik bestera zeharkatuz, egurrez egindako zubi hestu, luze eta arriskutsua. Hasi ginen banan banan igarotzen, Harriet, Laino eta gu biok lehendabiziz, gero gure atzetik gerlariak. Hamabost bat gerlari igarotzeko gelditzen zirenean, gezi odei bat erori zen gure gainean. Gerlari gehienak han erori ziren zerraldo. Harriet bera, gezi zorrotz batek zeharkaturik gure aurrean erori zen. Erromatarrak ziren eta erreka ondoko harkaitzetan ezkuturik zueden. Laister, sasien artetik erromatar soldadu batzu atera ziren gatazka odoltsu bati hasiera emanaz. Ez zegoen zer egiterik, gureetako gehienak hilik bait zeuden, eta hauxe ikusirik, zaldiei jo eta ihesari ekin genion, erromatar zaldunak atzetik zetozkigutela.

Ez dakit zenbat denbora pasako genuen korrika, zalapartaka,... agian ordu t'erdi, baina azkenean erromatarrek jarraitzeari laja egin zioten, eta guk atsedean hartu ahal izan genuen. Oso jende gutxi gelditzen ginen, Laino, ni, Astiron, eta sei edo zazpi gerleri. Gelditzerakoan Astiron gezi batek zauriturik zegoela ikusi genuen. Ez zuen bat ere esaten, zuri zuria zegoen, eta bere begirada arras galduta. Ez nion ezer aditu ahal izan, nahiz eta nik hamaika hitz esan,... hortik ordu laurden batera hilik zegoen nere besoen artean.

Astiron, nere lagun mina, nire bidetako adiskidea, hilik zegoen euskal lurrean etzanda, gau beltza zen eta nik saminki egin nuen nigar. Agur Astiron, agur laguna, paradizuko zelai urdinetan berriz elkar topatu arte!



5.- Oso jende gutxi gelditzen ginen, Laino, ni, Astiron, eta sei edo zazpi gerlari. Gelditzerakoan Astiron gezi batek zauriturik zegoela ikusi genuen.

7.- «EUSKALDUNEK EZ DUTE AHAZTEN»

Goiz hura ez zen besteak bezelakoa izan. Eguzki ederra zegoen, txoriak kanta kantari... baina gure bihotzak goibeltz, Harriet, Astiron eta gerlari euskaldun gehienak hilik bait zeuden. Lainok ez zuen ezer esaten, bizirik gelditzen ziren beste gerlari gazteek gutxiago, baina denon begietan trixtura nabari zegoen. Neuk urraturik neukan bihotza, nere lagun Astironen oroimena beti nere buruan bait zegoen. Bapatean, Lainoren ahots eztsuak goizaldeko ixiltasuna hautsi zuen.

—Lasai anaiok, mendeku eta askatasunaren eguna ez dago urruti, laster Anibalek erromatarren indarra suntsituko bait du, eta gu euskaldunok berarekin egongo bait gara garaipenaren orduan!

Gerlariak ez zuten ezer erantzun, beren buruekin baieztatu baizik. Haietako batek, Haritz izenekoak, honela galdetu zuen:


—Eta zer egingo zuten erromatar horiek baskoien lurraldeetan?, nik uste nuen askoz beherago, Herribehera aldetik zebiltzala!

—Bai halaxe da —erantzun zion Lainok— baina zenbaitetan gure mugak gaudituz gure herrialdeetan barrena sartzen dira ikara sortaraziz, herriak errez eta gure gizon-emaumeak akatuz; Hau eginda martxa ederrean itzultzeko. Eta hauek xiur aski horietako talde batekoak izanen lirateke.

—Ba gauza da, jipoi ederra eman digutela madarikatuak!

—Bai ongi diozu Haritz, madarikatuak!, herri askeen zanpatzaileak!, gizon-emaumeen erahiltzaileak!, ilusioen lapurrak!,... baina Amalur gure jainkosa babesle haundiak laster emanen die horren ongi merezi duten zigorra, Anibalen eskutik joango zaie ongi irabazitako zigorra!

Hau esanda eta niregana hurbilduz, eskua jarri zidan lepo gainean honela esanaz:



6.- Eta zu Xarit, laguna, jakin ezazu euskaldunok ez dugula inoiz ahazten, eta nere aita eta zure lagunaren heriotzak ez direla alperrikakoak izango, gure askatasunaren aldeko borroka nahiaren hazi emankorra baizik.

—Eta zu Xarit, laguna, jakin ezazu euskaldunok ez dugula inoiz ahazten, eta nere aita eta zure lagunaren heriotzak ez direla alperrikakoak izango, gure askatasunaren aldeko borroka nahiaren hazi emankorrek baizik!

Begiratu ninduen begietara eta bere begiradak zer edo zer gehiago azaldu nahi zuela zirudien. Altzatu nintzen eta indar berok eman nion eskua. Laster Iruiñerako bidean geunden gure zaldi azkarren gainean, urrutiratzerakoan Astironen oroimena etorri zitzaidan burura eta ezin izan nuen bera lurperaturik zegoen zelai aldera begirada trixte bat ukatu.



8.- «IRTEERAREN ORDUA»

Bidean ez genuen bestelako oztoporik izan eta horrela bi egun barru Iruiñeko harresien aurrean ginen. Ez zen haundiegia, behintzat nik ezagutzen nituen beste hiriburuekin gonbaratuz, baina bai ederra eta egokia. Bere harresiak ez ziren oso garaiak baina bai sendoak, bere etxeak ez ziren luxu haundikoak baina bai txukunak, eta bere aberatsak ez ziren oso aberatsak baina bai osasuntsu eta jatorrak.

Bere kaleak hestu samarrak ziren, eta gure zaldiekin larri larri ibili ginen. Azkenean, «Maritxalar» izeneko ostatu aurrean gelditu Lainok nagusiari posada eskatu egin zion.

Iruiñeko kaleetan mugimendu haundia nabaritzen zen eta baita gizon armatu asko ere. Ostatuak jendez josita, eta nonahi aditzen zen bertso edo kanta zaharraren bat. Giro izugarria zegoen eta guda usaia nonahi eta noiznahi nabari ziteken. Jendea pozik zegoen eta egunetik egunera Euskal Herri guztietatik etorritako gerlari gazteen presentzia nabarmenagoa egiten zen.

Hamabost bat egun pasata, berri ona denon ezpainetan zebilen: euskal leinuetako buruzagien batzarreak, Anibalek eskatutako erromatarren aurkako laguntzari baietza emana zeukan; Eta euskaldunak pozaz gainezka zebiltzen erromatarrei eman behar zieten jipoiak pentsatuz.


Hurrengo hilabeterako euskal tropak Iruiñea aurrean bilduta zeuden, erromatarren elkartua zen Sagunto izeneko hiria behin suntsitu ezkerro, Ebro ibai ondoan zain zeuden kartagotar tropeengan abiatzeko prest. Irteeraren eguna zoragarria egin zitzaidan oso. Iruiñeko dorreetatik adarrak joz eman zuten irteteko seinaleari jarraituz, hiru mila gerlari martxan ipini ziren, kanta kantari, euskaldunen lau burutako gurutze borobiltsu edo lauburuak airean harro harro astinduz. Ni beraiekin nindoan, eta agurtzeko orduan musu bat eman nion Lainori esanaz:

—Itzuliko natzaizu garaipen doinuarekin!

Berak, irriparrez, erantzun zidan:

—Itzuliko gara, ni ere zurekin bait noa, hemendik aurrera zure izarra izango da nerea, zure zortea nerea, eta nera aita eta zure lagunaren mendekua biona! Banoa zurekin eta Anibalekin askatasunaren eguna ikustera! Goazen!!!

Eta hau esanaz, sokaz jo zion bere zaldiaren ipurdiari eta troparena abiatu zen.



7.- Ni ere zuekin noa,
hemendik
aurrera zure
izarra izango da
nerea.

9.- «ALPE MENDIETAN BARRENA»

Egun luze ziren Aragoitik irten izan ginela, Auñamendietako elurra ahazturik zegoen, baita Galian zenbait erromatar gudalderekin izandako gatazka eta istiluak ere. Ilargi eta Eguzki askotan aldatu izan ziren zeruetako bideetan eta oraingoz Erroma urruti, oso urruti genuen. Urruti eta helduezina gure begien aurrean «Alpe» izeneko ikaragarriko mendi garai eta zorrotzak altzatzen bait ziren gure bide guztiak erabat moztuz.

Elurra mara mara ari zuen eta dan dana zuri zuria zegoen. Hura hotza gure hezurretako mamiraino sartzen zena! Gure larruzko jazki lodiak guztiz egokiak ziren, baina arma astun eta guda abere asko ematen genuenez, gure martxa ez zen guk nahi genuen bezain azkarra.

Egun batzuren barru, Alpeetan zehar genbiltzan, arrastaka baina sendo, hotzez hiltzen baina odolez bero. Jendetza ikaragarria ginen, elurraren ozpa ozpa mugitzen ginenok, berrogeitahamar mila oinezko gerlari eta bederatzi mila zaldun inguru,...

Haundiak ziren oztopoak, haundiak trabak,... elurra, horma, hotza, etsaiak nonahi zelatan,... baina gure ametsen indarra, gure garaipen grinak,... haundiagoak ziren oraindik; Izadiak bidaltzen zizkigun zankadila guztiak baino askoz haundiagoak, eta beraiei esker jarraitzen genuen aurrera izadiaren oztopoak gaindituz, jainko etsaien gorrotoa desafiatuz.

Euskaldunak oso ohituratuta zeuden mendian eta elurrean ibiltzen eta beraiek zeramazkiten pisu astunenak. Trebeak ziren benetan aziendak eramaten eta trebeagoak borrokatzeko orduan.

Asto, behor edo mando,... berrdin zitzairen, eta animaliek ederki jarraitzen zieten tranka, tranka,... alde batetik bestera, haitz batetik bestera,... ia atsenaldirik hartu gabe. Hori bai Afrikatik ekarritako elefante iletsuekin ez zuten ezer jakin nahi, beraien aurrean ez bait zekiten zer egin. Errespetu ikaragarria zieten eta ahal zuten neurrian beraiengandik urruntzen saiatzen ziren. Beraien ustez, elefanteak ez ziren piztiak, izaki jakintsuak baizik; eta horregatik beraiengan oso errespetu misteriotsu eta iluna agertzen zuten.

Bai, euskaldunak gerlari adoretuak ziren, aziendazain trebeak, gizon-emakume alaiak eta bihotz haundikoak, baina denbora batera apalak, umilak, ixilak,... eta beren sinismen zaharren gordelari amorratuak!

Behin ilargi beteko gaua zen eta Lainok surta haundi batzu pizterazi zituen. Euskaldun guztiak bildu egin ziren beraien inguruan, eta hantxe egon ziren gau osoa kantatuz eta dantzatuz. Oso kanta liluragarri bezain goibeltzak ziren, melankoniaz beteta,... eta dantzak azkar azkarrak, erritmoz gainezka. Soinulari batzuk «txirula» izeneko zurez egindako doinutresna jotzen zuten bitartean, dantzariak jauzi bortitz batzu eginez, beren ezpatak topa arazi zituzten; Eta bukatzeko Laino jaso egin zuten beren gurutzatutako ezpaten gainean eta Ilargirantz begiratuz altzatu egin zuten. Une haietan jainkosa eder bat iruditu zitzaidan, bitartean, nere bihotzaren taupadek gero eta azkarrago jotzen zuten: danba, danba, danba,...!

Erritoari bukaera eman eta gero, gure dendaren bakardadean elkar ikusi genuenean, beren eginkizun misteriotsuez galdetu egin nion, eta bai berak erantzun ederra eman ere.

—Xarit, gaur gauean, heriotzaren jainkosa den Ilargi bere sasoi gorenean dago, zahar zaharra, bete bete,... eta ondorioz bere ezezkor eragin gaiztoa gero eta indartsuago ager daiteke AMALURren gainean. Honelako egunetan, euskaldunok kantatu eta dantzatu egiten dugu bere indar ezezkorrak gera arazi nahiean; Eta suaren bitartez iluntasunezko erreinu beltzaren erreginak ihesari ekin dakion.


—Orduan zuen Ilargi eta gure Astarte jainkosa gauza bera dira, gu ere ilargiaren ezezkor indarren bildur bait gara.

—Horrela izanen da eta agian jainkoek nahi izan dute Ilargi eta Astarte, Euskal Herria eta Kartago, zu Xarit eta ni Lainoren bideak gurutza zitezen!

—Ez da asmakizun txarra, Ilargi eta Astarte, Euskal Herria eta Kartago, zu eta biok... Bi bide eta zorientasuna eta askatasunerantz daraman bidegurutze bakarra!

Azken esaldi hau bukatu aurretik, Lainoren ezpainen samurtasuna sumatu nuen nere masailetatik.





8.- Agian jainkoek nahi
izan dute Ilargi eta
Astarte, Euskal
Herria eta Kartago,
zu Xarit eta ni
Lainoaren bideak
gurutza zitezen!

10.- «ILARGI ETA ASTARTEREN BEDEINKAPEN AZPIAN»

Laino zoragarria zen, Alpeetako mendi gailurretako loretxoak baino politagoa. Umila, apala, xumea,... baina denbora berean azkarra, indartsua, bizia,... Kartagon eta Mediterranioko bi ertzetan emakume ederrak ezagutzen nituen, Mauritaniako neskatxa beltz beltzak, ikatza baino ilunago diren neskatxa xarmangarriak, Astarteren argitasunaz jantzitako iberiar neska lizun bezain ederrak,... baina Lainoren musuek agertzen zuten xarma ixila, bere begien apaltasun argitsua, bere barru barrundik zerion jatortasun dizdiratsuak liluraturik neukaten. Neska euskaldun haren izaeraz kautiborik nengoen eta bere nortasunaz preso.

Gainera ez zen bakar bakarrik bere edertasuna nere baitan iraultzen zena, nere bihotza bol-bol-bol,... irekiten jartzen bait zen bere hitz eztitsua entzuterakoan, bere irripar misteriotsu bezain gozoa ikusterakoan, bere arnasa epela nere ondoan sumatzerakoan...!

Berak ere maite ninduen, eta ahal zuen guztietan honelaxe adierazten zidan. Bera euskalduna, ni kartagotarra, baina zer axola?, bere neska eta ni mutila bait ginen eta


xiur aski gure elkarrekiko maitasuna Astarte eta Ilargiren eskuetatik zetorkigun! Zergatik ez?

Aspaldi egiten genuen lo elkarrekin, aspaldi partitzen genituen ogia eta ardoa, ohea eta ametsak,... baina oraindik zerbait gera zitzaigun gure lotura finka ahal izateko, gure jainkoren bedeinkapen babeslea! Behin honela esan nion, eta baita berak baieztatu ere. Handik astebetara dana prestatu zegoen. Urruti, oso urruti geunden geure aberrietatik, mendi zorrotz eta izoztu haietan,... elurra etengabeki botatzen zuen,... baina hala eta guztiz ere, gure ordua zen, bion ordua, eta berari jarraituz ezkondu egin ginen negu gorriko goiz elurtsu hartan.

Anibalen denda aurrean aldaretxo bat eraiki zen, eta bertan erdi erdian zegoen Anibal gure buruzagi haundia. Bere eskubian euskaldunen aztia eta ezkerretan gure sazerdote nagusia. Bakoitzak bere jainkoei egin zien eskeintza. Gure sazerdoteak Baal, Molotx eta Astarteri, euskal aztiak berriz, Ortzi, Mari eta Ilargiri. Geroxeago Anibalek nere esku eskubia eta lainoren ezkerre hartuz, bere sastagai bitartez ebaki sakon bana egin zigun gure eskumuturretan. Odo-la jarioan zegoen eta bi sazerdoteek gure eskuak hartuz odolaren bitartez lotu ziztuzten.

Une hura kontaezina da, adierazezinezkoa. Nik Lainoren odol beroa sumatu nuen nere gorputzatik, bere izaera nerearen barrundik,... Muxu gozoa eman genion elkarrieta orduantxe Anibalen hitzak aditu ahal izan genituen.

—Euskaldunen Ilargi jainkosa zuria eta gure Astarte argitsuak bedeinka dezaten bi neska mutil hauen elkarrekiko bidea, herioa beraietaz jabetu arte. Euria edo elurra, pakea edo guda, maitasuna edo go-



9.- Euskaldunen Ilargi jainkosa zuria eta gure Astarte argitsuak bedeinka dezaten bi neska-mutil hauen bidea, herioa beraietaz jabetu arte!

rrotoa ez daitezen sekula izan jainkoek bedeinkatutako lotura honen oztopo!

Jainkoen bedeinkapena zuekin joan dedin beti, itsasoetako ura agortzen edo mendietako elur zuria txukatzen ez den bitartean! Zuen biziak itzaltzen ez diren bitartean!

Berehala, euskaldunen eztarrietatik irrintzi alai, basati, ozena,.. sortu zen aize kulkaren doinua urratuz. Huraxe zen dantza, kanta eta ardoari ekiteko ordua. Eta egun osoz horrela izan zen. Gau hartan izarrak ageri zeuden eta hilgora polita, dizdiratsu, itxaropenaz beteta,... guri begira irripartsu, apaltsu,...!



11.- «ELUR AZPIAN ETSIPENAREN ORDUTAN»

—Kontuz elefantearekin!!! —oihukatu zuen aurreko aldetik animalia gidatzen zuen gerlariak—.

Baina zoritxarrez beranduegi zen, elefantea elurrez estalirik zegoen hamildegi ertzean zanpatu eta gero, ikaragarritzko zulo ilun eta sakonera hamildu bait zen, berarekin batera gainean garrantzen zuen zama eta aldameneko bizpahiru gerlari eramanaz.

Hasieran, gerlarien ikarazko karraxiak elefantearen orru eta ekaitzaren doinu basatiarekin nahastu ziren; Pixkanaka pixkanaka hamildegiaren urrutitasunean urrundu ziren,... gero azken doinu labur, legorra,... eta berehala lehenoko doinu aspergarria: elurraren mara mara eta tximista argitsuen arteko trumoi danbada bildurgarriak. Ixiltasuna eta trixtura, bildurra eta etsipena, nazka eta gogoa,... osagai ederrak holako irudi danteskorentzako.

Bapatean trumoa baino sendoagoko ahotsa aditu genuen «AURRERA!!!» esanaz. Anibal zen, gure buruzagi haundia, gure itxaropenezko makila, gure askatasunaren aldeko gudari kementsu eta bulartsua! Bere ahotsak izugarritzko eragina zuen guregan, eta berak gidatu gintuen etsipenezko une latz eta gogor haietan Alpeetako mendi izoztuetatik zehar.

—Ikusi al duzu Laino?, Anibal bera zen!

—Bai Oiert!, —erantzun zion euskal tropen buruzagi gorenari, irmoki begiraturaz,—. Berbera zen!, a zer kemen haundiko gizona!, berarengatik ez balitz, aspaldi egongo litzake gudaloste hau porrot eginda. Hemen bagaude berari zor diogu, eta baita biharko egunean Erroma suntsitzen badugu ere!

—Ez dakit inoiz lortuko dugun! Garai batean, guda ibilaldi luze honi hasiera eman genionean, bat ere pentsatu gabe baietz esango nuke. Baina gaurko egoeran, bat ere indarrik gabe gaudenez, elurrez inguratutik, gudaroste erdia gaisorik eta beste erdia mendi madarikatu hontako zulo ilunetatik hamildurik, ez dakit zer lortu ahal izango dugun! Oraintxe hamildu den elefantea hamaseigarrena zen; Honela jarraitzekotan laster ez dugu bat ere izanen, zalditeria erdia galdurik daukagu,... holako martxan Erromako ateetaraino gerlari nekatu, gaiso eta bakan batzu, besterik ez dira iritsiko!

Anibal berak, nahiz eta ezer aipatu ez, begi bat galdu omen du izozturik, hotzak jota. Gauza izango ote da gure gizonak kanposantu hormatu honetatik bizirik atera ahal

izateko? Hauxe da nire bildur haundia Laino!

—Oiert, lasaitu zaitetz!, bai, ari gara franko sufritzen, baina Anibalek aurrera esaten digun bitartean, aurrera egin beharko dugu, berak ondo bait daki zein den garaipenaren bidea, eta nahiz eta latza izan, berari jarraitu behar gatzazkio askatasunaren eguna lortu arte!


Ulertzen dizut, ene laguna, nik baditut baita ere nere kezka, nere bildurrak,... baina bihotzak Anibalen garaipen haundiaren berri ematen dit, eta guk euskaldunok berarekin batera irabaziko dugu! Akabo betiko erromatar erasoaldiak, akabo betiko erromatarrekiko ikara!

Euskal Herriko belarra ez da sekula gehiago erromatar zaldiek zanpaturik izango eta gure eguzki dizdiratsuak ez ditu inoiz gehiago beren metalezko arrano ankerrak argituko!

Askatasunezko egunsentia iristerakoan, hilda dauden gerlariak jaioko dira berriro. Bizirik gelditzen garenok Euskal Herri berri bat eraikiko dugu herriko seme-alabentzat. Euskararen ahotsak eramaten dituzten haizeak beste lurraldeetaraino eramango dute berria. Abestiek gure herriaren askatasunaz mintzatuko dira eta gaua berriro itzultzerakoan ilargiak eta izarrek euskaldunon ametsa gordeko dute: «Euskal Herri maitea»!

(jarraitzeko)

Egilea: KARLOX BARRENTSORO
Marrazkiak: ANE



10.- Oiert, lasaitu zaitetz, bai ari gara franko sufritzen, baina Anibalek aurrera esaten digun bitartean, aurrera egin beharko dugu, berak ondo bait daki zein den garaipenaren bidea.

ZER OTE DU KAMAMILAK?

Nork esango zigun duela bi hilabete, gure Ixio, hain «bulloso» eta alproja bera, Lezoko kaleetatik ia desagertuko zela derrepente!

Eta hori ez da handiena. Azaltzen denean ere ez dugu ezagutzen; orain dotoreago jazten da (etzen zaila benetan), baina aldaketa nabarmenena begiradan dago. Begietan dauzkan puntto beltz horiek eguzki beltzak dirudite dirdiraren poderioz.

—Jodé hi, —Lutxoren bronka— gutxitan azaltzen haiz, baina etortzen haizenian zerbait esantzak; kuadrilla honetan fantasma pilla bat bagenizkin eta ez diagu beste bat behar. Zer arraio pasa zaik?

—Eh? Ah bai, bai,... Zer esan didak?

Dena dela, berak kontatzeko zai bagaude, alperrik gabiltza.

Eskerrak nik dexente dakidala kontu honetaz, baina etzaidazue galdetu nondik enteratu naizen.

«Borobil» baserriko berrogeita zortzi urteko mutilzahar honi beste askori bezala, maitasunak bete-betean jo dio. Horixe da dena.

—Hori al da dena? galdetuko didazue agian.

Ba halaxe da. Baina hau ez da edozein sentimendua; nonbait, bere karrozeri adinean, hamabost urtetako indar itsuarekin lehertu zaio barrena. Ez dauka besterik buruan.

Azkeneko Santakruzetan ezagutu omen zuen Marinés. Bai, bai, «Errekondo»ko Marinés. Badakizue zein den. Emakume ederra, ixila, langilea, bere masail kolore gorri eta guzti.

Egia esan, neu ere harrituta nago aspalditik, nola hogeita hemezortzi urteko emakume hau ezkondu ez den pentsatuz. Lezoko jende gutxik dauka bere berri eta Ixio ere sarritan galdetzen dio bere buruari non kristo izan dituen begiak orain arte.

Egun hartan, nonbait, funeral baten ondoren, beste bi emakumeekin kamamila hartzen ari zen Marinés Aizpean.

Gure Ixio, auskalo zergatik, fijatu zen gona granate eta jertse grisa haiengan. Eske luze haiek, ezpainak, masailak, ahotsa (zein ahots goxua!). Dena ederra zuen, baita katilua ere. Geroztik Ixio beste bat da.

—Nik uste nian horrelako gauzak pelikuletan bakarrik gertatzen zirela —dio bere buruari—.

Etxean ez die ezertxo aipatu ama eta arrebari, baina ez dira hain tuntunak eta antzeman diote zerbait.

Geroztik, azken bi hilabete hauetan, askotan ikusi du Ixiok Marinés. Badaki Erren-

teriako azokan larunbatero loreak saltzen egoten dela (nola enteratu ote da?). Ixiok sarritan erosten ditu loreak etxerako (baserrian lorarik ez balego bezala), baina ez noski Marinesi, (horixe bakarrik falta zitzaigun), bere aldamenean dagoen beste baserritar bati baizik. Horrela oso hurbiletik ikusten du, baita errepasso batzuk eman ere.

—(Zein ondo jazten den! gero eta gazteagoa iruditzen zaidak! Dedió zein ederra den! Ixio, noiz hitzegin behar diok?... Baina, zer esan?... Eta, gaizki hartzen banau?—).

Nolako bihotz taupadak; nolako urduritasuna; zernolako egonezina! Joan den igandean, gure mutila Donostiara zijoan topoan. Señorito bat bezala, bakeroak eta horrelako jazkiak baztertu ditu; orain Burberrys eta kokodrilo markako gauzak josita dabil (jodé Ixio, hau aldaketa).

Asmatuko al duzue nork okupatu zuen aurrez aurreko eserlekua?

Bai jaunak, horretxek berak. Ez al zaizue inoiz horrelakorik gertatu?

Hau papelada! hain hurbil eta hain urruti! Hain pozik eta hain larri! Etzekien nora begiratu, baina begiak «autonomo» zebilzkion.

—(Mekaguen la letxe, azkar zebillek topo alu hau! Zergatik ez ote dira paradak luzeagoak?)—.

Loiola inguruan, disimulatzeko, «Marca» zabaldu eta irakurtzen hasi zen. Alperrik. Tentatua egon zen paperean zulotxo bat egin eta han dik espiatzeko, baina nabarmenegia iruditu zitzaion eta etzen ausartu:

—(Konturatzen bada, hireak egin dik, Ixio).—

Azkenean, nolabait, Amara aldera iritsi ziren, eta Marinés Anoetaruntz abiatu zitzaigun. Ixio, atzetik sonanbuloa bezala.

Astoriako parean, Marinés bere adineko hiru gizaseme eta emakume batekin elkartu zen, eta pixkat hitzegin ondoren, zinera sartu ziren.

Ixio zer egin jakin gabe geratu zen. Bapatean, mundu guziarekin haserre sentitu zen; bera ere zinera sartzea pentsatu zuen, baina oraingo honetan ere ez zen ausartu.

—Kaka! Etziok deretxorik! Hau kabroikeria! Zein kristo ote dira kaleume hauek?

Zer ote da jeloskor egotea! Gure mutilak hurrengo topoa hartu eta etxe aldera itzuli zen.

Azken aste honetan, egunero jan da arratsaldeko seietako topora ea bere maitea ikusten duen, baina arrastorik ez. Zazpiretan, etsita, Leku Zaharrean bi mutur eta «txanpi» bat baxoerdi batekin hartu, eta etxera etortzen da pentsatzen duzuen humorarekin. Noski, ez dijoa poteatzera kuadrillako astakilo horien ziztadak ez entzun-teagatik.

Horrela daude gauzak momentu honetan, eta beldur naiz zein izango den Ixioren hurrengo pausoa pentsatuz. Martxa honetan, Eguberriko festak ez dira hain goxoak izango gure mutil zahararentzat. Ez nintzateke harrutuko Santokristokoko kandelak bisitatzera joango balitz baina hori ikusteko dago, eta txintxoak bazarete, hurrengo batean emango dizuet Ixioren berri gehiagi.

ANTONIO MARI

ETA EGUNERO... demagun

(I)

LORE ARTEAN
sustraitutako zuhaitzak
ez du lehorterik ezagutzen,

LORE ARTEAN
sustraitutako zuhaitza
ez du antzutasunik nozitzen,

eta Txantxangorria
datorkionean
bihotza dio irekitzen

LORE ARTEAN
pausatutako txantxangorriak
ez du nekealdirik ezagutzen,

LORE ARTEAN
pausatutako txantxangorriak
ez du ekaitzarik nozitzen,

eta kantua mokura
datorkionean
bihotza dio irekitzen.

(II)

DEMAGUN...

goizean esnatzerakoan
Txantxangorriaren kantua
dudala entzun.

DEMAGUN...

goizean esnatzerakoan
Txantxangorriaren negarra
dudala entzun.

DEMAGUN...

Txantxangorria
herriaren bihotzetik
bere kumeei kantuka
dudala entzun

eta urrutian
eta haizearen magalean

burdinsarea
kantuaren azpian erortzen
dudala entzun.

(III)

DEMAGUN...

Francisco Javier Garmendia Arrieta

demagun... zeldako leihotxoaren bestaldean dagoen horma zaharra,
eta egunero... horma zaharra gaindituz irrintzi bat bidaltzen duela,
eta egunero... Santakruzetako sokamuturrean zezen aurrean korritzen duen
gaztearen irrintzia.

DEMAGUN...

Marivi Arrizubieta Oskoz

demagun... Bonxeko burdin erdoildua bustitzen duen euria,
eta egunero... euritantak aurpegiko azalean behera dituela,
eta egunero... ijurkoko kale grisak bustitzen dituen euritantak.

DEMAGUN...

Emiliano Viaña Balda

demagun... Ceutako gau lehorra,
eta egunero... gaueko ixiltasunea Los Rosaleseko presondegitik zabaltzen den
txalaparta
eta egunero... Altamirako gainatik bailara guztian zabaltzen den Txalaparta.

DEMAGUN...

Manuel Gonzalez Fernandez

demagun... Langraitzeko hormetako adreilu bihotzgabea,
eta egunero... adreilu bihotzgabea bere esku zimurtuekin ferekatzen duela,
eta egunero... Ijurko auzoko pareta mutuen adreilu gorria.

DEMAGUN...

Pello Cuesta Garmendia

demagun... Martuteneko zeldako leihoa
eta egunero... leihotik eskuak, begirada... ortzeruntz luzatzen dituela,
eta egunero... Jaizkibeleko magalerantz luzatzen dituela.

DEMAGUN...

Jose Ramon Zabaleta Garmendia

demagun... Caceres Ieko izotz antzua,
eta egunero... leihotxoan pausatutako izotz urtzen duen irrifar goxoaren beroa,
eta egunero... lagunen oroitzapenetan loratzen den irrifar goxoaren beroa.

DEMAGUN...

Juanito Trecet Sastre

demagun... Puerto de Santa Maria Ilko zeldetako ate mugigaitza,
eta egunero... ate mugigaitzaren atzean itxaropenaren keinua,
eta egunero... sotxoko bideziorretako hankapauso bakoitzean uztartzen den
itxaropena.

TXANTXANGORRI!!!

kanta ezazu urrutira
kanta ezazu zure kumeen bihotzera
eta zure mokotik darion kantuak...
eta zure kantutik darion ekaitzak...

distantzia du urratuko,
bakardadea du suntsituko,

EZ DU KATERIK EZAGUTUKO!!!

Lezon, 1992ko apirilaren hamaseian.

NEKAZARIAK HASERRE

I

Milla bederatzirehun
larogeti ta hamabi
apirilan zortzian
hasi naiz kantari
moldatu nahi dizkiot
bertso bat edo bi
hil zorian daukagun
nekazaritziari,
gai horretan badago (bis)
zer esana ugari.

II

Gaztetatik probatu
dut nekazaritza
horregatik nahi nuen
gai horretaz mintza
sarritan alperrikan
hamaika ekintza
gure etsai haundina
genuen ekaitza,
orain berriz Europak (bis)
dakar zorigaitza

III

Iñork ez du babesten
gaur nekazaria
bururik ezin jaso
hau da komeria
ezin sorturik gabiltz
jateko ogia
Bruselasetik jartzen
digute neurria,
horrek ekarriko du (bis)
gure agonia.

IV

Esne ta haragiak
zaizkigu ugaldtu
Europatik nahi dute
onuntza bialdu
gure etorkizuna
behar dute galdu
horrela jokatzek
zentzurik bai al du?
lehenengo bertakoak (bis)
behar dira saldu.

V

Nahiko aldapatsua
da Euskadi guztia
zail daukagu
maila iristia
agintariak hortaz
ohartzen ezia
hemen gertatzen dena
ez al da tristia,
zortzian saldu behar (bis)
hamabi kostia.

VI

Millaka agintari
beste hainbat lege
baina ezer ez dago
hemen gure alde
zapaldu nahi gaituzte
suabe suabe
ez badugu jokatzek
tinko ta trebe,
laister gara Euskadin (bis)
baserririk gabe.

VII

Nahiz eta hartu dugun
hainbat pazientzi
ez ditzagula gure
galtzak behera jeitsi
gogor behar diogu
geureari eutsi
damutu ez gaitezen
bihar edo etzi,
orain beharko dira
hortzak erakutsi.

VIII

Nahiz eta egon asko
sufritzen ohituta
ezin gintezke bizi
belaunikatuta
errespeto pixka bat
merezi dugu ta
hortzak erakustera
gaude behartuta,
gogor joka dezagun (bis)
guztiok batuta

MARTZELINO «ARGIÑANE»

BREVE REFLEXION EN TORNO A LA VOLUNTAD POPULAR

Hombres, mujeres, despertad del letargo en el que estáis sumidos. Se supone que como tales, disponemos de la facultad de pensar.

Una vez más, ¿hasta cuándo?, los politiquillos de turno, sumidos en su mediocredidad, intentan usurparnos nuestro pensamiento, nuestro sentir, en definitiva nuestra razón. Los señores del Pacto, léase PNV, PSOE, EA, y EE autoarrogándose en su democracia representativa, se sienten cómodos en esta dinámica, esto es, alcanzar cotas de poder a costa de marginar al auténtico protagonista: la voluntad popular. La delegación de voto ha llegado a su punto más esperpéntico: «tú vota, pero poco más». Este sería el mejor slogan de campaña de las pasadas elecciones municipales de Mayo. Poco importan las ideologías, los programas, en definitiva, el pensamiento; lo que prima es el reparto de poltronas, con el supuesto beneplácito de una comunidad sin el valor de servirse de su propia razón.

No debemos de olvidar que se sirven de nuestra opinión, lo cual no deja de tener su importancia. Si nuestra opinión es utilizable, que sea fiel espejo de ella misma.

«La Ilustración es la liberación del hombre de su culpable incapacidad. La in-

capacidad significa la imposibilidad de servirse de su inteligencia sin la guía de otro. Esta incapacidad es culpable porque su causa no reside en la falta de inteligencia sino de decisión y valor para servirse por sí mismo de ella sin la tutela de otro. ¡Sapere aude! ¡Ten el valor de servirte de tu propia razón!: he aquí el lema de la Ilustración». (E. Kant).

Estas palabras kantianas son una invitación a lo que ellas mismas expresan.

Esta reflexión tiene su origen y su expresión real en los hechos que se dan en un entorno geográfico: el pueblo de Lezo, punta de lanza del Pacto cuatripartito, al menos en su aplicación. Después de casi dos años de acción conjunta de una oposición nebulosa, «han conseguido» usurpar la voluntad general del pueblo de Lezo. Esta usurpación es el más fiel reflejo del esperpento mencionado líneas arriba.

«La pereza y la cobardía son causa de que una gran parte de los hombres continúe a gusto en su estado de pupilo».

**ATZEKOATE
AITOR SARASOLA
JUAN RAMON MAKUSO**

PAKEA ETA PUZKERRAK

A spaldi egin zuen gizakiak berekoikeriaren aldeko eta naturaren aurkako apustua, bai eta gogor asko apustu egin ere! Erronka inoiz baino gogorrago jokatzan ari da azken aldi honetan, naturaren aurka agindako astakeriak ikusi besterik ez (Jaizkibel edo gure kaiko ura ondo daudela uste duenak lasai eska dezake inutilidadea).

Hala ere, betidanik izan da natura bizitu beharra sentitu duena, naturari eskerak bizi izan direnak. Asko gara oraindik Jaizkibelgo itsas bazter eta tontorretan barrena ibiltzen garenak.

Baina badirudi ihesbide hau ere moztu nahi digutela. Orain artean mendia zaka-rrontzi bat dela uste duten hiritar pres-tuak, tiroz gure belarriak eta piztien ha-ragiak urratu dituzten ehiztariak, natura

babestu asmoz etengabeko tiro sioak egiten dituzten gure zaindariak eta abar luze bat izan dugu gure pasiotxoetan bi-dai-lagun.

Azken aldi honetan, hala ere, parasito mota berri bat sumatu dugu, Jaizkibel moto laisterketa pista bat dela uste du-tenak. Hortxe ditugu egunero (eta aste-buruan zer esanik ez), eta hauengandik ezin da ihes egin, motorren orroa nirea ez bezala oilagorrek ere entzuten dute.

Inguruko guztiak eta ez hain inguru-koak nerbioetatik jota utzi eta etxera itzultzen dira, arratsalde ederra pasa dute haize garbia hartuaz (Beren puzkarrena, noski, zerena uste zenuten bada?)

IMANOL ESNAOLA

OHARRA:

Eritzi artikuloetan argitaratu behar duen idazlan orok idazlearen izen abizenak eta N.A.N. zenbakia igorri beharko dizkigu.

Todo aquel que quiera ver publicado su artículo de opinión deberá facilitarnos nombre y apellidos junto con el número del D.N.I.

Faint, illegible text at the top of the page, possibly a header or introductory paragraph.

Main body of faint, illegible text, appearing to be several paragraphs of a letter or document.

FRANCESCO

Extremely faint and illegible text at the bottom of the page, possibly a signature or footer.

